

HIZTEGIGINTZAKO III. IHARDUNALDIAK

Laurgain-Aia, 1991-XI-28

BILERA AKTA

Aiako Laurgainen, 1991-XI-28

*Mikel Zalbide
Hiztegi-gintza batzordeko idazkaria*

GAIA: Hiztegi-gintza batzordearen luze-zabaleko bilera, Euskaltzaindiak hiztegi-berrikuntzaren alorrean azken urteotan daraman bidea aztertu eta aurrera begirako finkapen-lanari ekiteko.

BILDUAK:

- *Euskaltzain osoak*: F. Ondarra, L. Villasante, P. Salaburu, J. Haritschelhar, J.M. Lekuona, J.M. Satrustegi, J.A. Arana Martija, E. Knörr.
- *Hiztegi-gintza batzordekideak*: M. Ensunza, A. Sagarna, A. Urrutia, M. Azkarate, M. Zalbide.

Berariaz gonbidaturiko beste zenbait lagun

X. Kintana; H.P.I.N.: Mirari Alberdi, E. Etxezarreta, Roman Berriozabal; I.V.A.P.: Eneko Oregi, Kasildo Alkorta, Araceli Diaz Lezana; Nafar Gobernuko H.P.Z.N.: Jose Luis Mendoza, Juantxo Ziganda; Alberto Agirreazaldegui, Kepa Altonaga, J. Agirre, M. Mateo, J.L. Lizundia, J.J. Zearreta, R. Badiola; ETB: Imanol Unzurrunzaga, Manu Arrasate, Antxon Aranburu, Eskarne Lopategi.

NOIZ-NON: Aiako Laurgainen, 1991ko azaroaren 28an, goiz eta arratasalde.

ESAN-EGINAK

1. J. Haritschelhar euskaltzainburuak eman dio bilerari hasiera, bertara bildu diren guztiei eskerrak emanez eta, bileraren xedea kontuan izanik, emaitza on baten itzaropena agertuz.

2. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusi den Mari Karmen Garmendia andereak hartu du ondoren hitza. 1986an Lekunberrin izandako azken bilkura eta aurretik ere egin izan direnak aipatu ditu. Bukatzeko,

bilerako partaideen iritziak kontuan hartuz erabakiak lehenbait lehen hartzea eskatu du. (Ikus, 1.eraskinean, bere txostena).

3. Hiztegitzintza batzordearen idazkari den Mikel Zalbidek, ondoren, honako izenburu hau duen txostena irakurri du: “Euskaltzaindia euskal hitz-altxorren berrikuntza-lanean: eginkizuna eta jardupidea”. (Agiri honen 2.eraskinean eskaintzen da txosten hori, bere osotasunean).

4. LEF programaren idazkari den Miren Azkaratek, azkenik, lexikologi irizpideak eta hitz-altxorren berrikuntza-lana uztartzen dituen txosten bat irakurri du. (Ikus, horren edukinaz jabetzeko, 3. eranskina).

5. EEBS programaren idazkari den Andoni Sagarnak hartu du ondoren hitza, honako txosten hau irakurriz:

“EEBS proiektuaren 2. fasea: abiaburua, helburu estrategikoak eta epe laburreko asmoak”. (Ikus, horren edukinaz jabetzeko 4. eranskina).

6. Hainbat zehaztasun eta iritzi-azalpen eman dira, txostenetan irakurritako aztergaiez. Aurrera begirako lan-prozeduraz, bereziki, irizpide posible desberdinak arakatu dira.

7. Zenbait puntutan, erabateko erabakirik hartu ez bada ere, hartarako pauso sendorik eman da. Horrela,

7.1. “Euskaltzaindiak lexiko-berrikuntzaren alorrean erabaki konkretuak hartzen hasi behar duen ala ez eta, hartzekotan, zein jardupidez jokatzeko komendi den”. Honako proposamen hau eman da, puntu horri buruz, ontzat: *Euskaltzaindiari lexiko mailan egiten den lanari bati bere oneritzia ematea eskatzen bazaio, kasuan-kasuan aztertuko da lan horri heldu ala ez. Baietz erabakitzen bada, Hiztegitzintza batzordeari lan horri buruzko txostena eskatuko dio Euskaltzaindiak erabakia hartu aurretik. Hiztegitzintza batzordeak, horrelakoetan, OHEn eta EEBSn metaturik dauden corpus-ak aztertuz eta LEFeko irizpideak kontuan hartuz prestatuko du bere iritzi-txostena.*

7.2. “Euskara batuaren hiztegia” (izen bat baino gehiago eman zaio proiektu honi bileran zehar; izen-azal desberdinekoak izanik ere bat zetozen guztiok asmo-edukinez).

8. Honako beste bi puntuotan, bestalde, erabateko iritzi-adostasuna agertu da:

8.1. Datu-base lexikografikoa sortu eta eguneratzea berariazko xedetzat hartzen du Euskaltzaindiak.

8.2. Jabegoa zaintzeko neurri juridikoak aztertzeko ardura hartuko du Euskaltzaindiak, bere Batzorde juridikoaren bitartez.

9. Hiztegitzintza batzordearen burua den Ibon Sarasolak bere uste-azalpena egin du azken orduan eta horren inguruko erantzun-sorta jaso da.

10. Hona, bilerari amaiera emanez, bertan hartu diren **AZKEN ERABAKIAK**:

10.1. Euskara batuaren hiztegia egin behar den ala ez berariaz aztertuko du Euskaltzaindiak, biharko bere osoko bilkuran.

10.2. Batzordea osatuko da, baiezkotan, hiztegi-lan honen diseinua egiteko.

10.3. Bai corpus-ak lexiko-base bakar batean elkartzeko, eta bai berauen ustiaketa zuzen bideratzeko, prozedura zehatza aztertuko da.

HIZTEGIGINTZAKO III. IHARDUNALDIAK

Laurgain-Aia, 1991-XI-28

*Mari Karmen Garmendia
hizkuntza politikarako idazkari nagusia*

Euskaltzaindiak eginak ditu behin baino gehiagotan euskal lexikoaren alorrean duen eginkizunari eta eginkizun hori betetzeko behar lukeen plangintzari buruzko gogoeta jardunaldiak eta batzarrak. Gogoan ditugu, besteak beste, Loiolan eta Hondarribian 1981ean, Angoston 1983an, Gasteizen 1984ean, Lekarozen 1985ean eta Lekunberrin 1986an egin zirenak. Hauetako bakoitzean gaiak giro egokian aztertu, iritzi ezberdinak jaso eta erabakiak hartu izan dira aurrerantzean ere lanean jarraitzeko.

Hona hemen gaur ere Laurgainen hainbat lagun elkartuta zerbait aztertu eta aurrera begira erabakiak hartzeko asmotan.

Gai bat baino gehiago dira nere ustez Euskaltzaindiak geroko gero-tan utzi gabe patxadaz eta sakon aztertu behar dituenak, hala nola, bat aipatzeagatik, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* korpusak unibertsitate mailan, esate baterako, izan dezakeen erabilera. Baina gai bakoitza dagokion unean eta tokian aztertu behar dela uste dut eta gaurko honetan beste bi dira nere ustez sakondu beharrekoak:

1. Zein da Euskaltzaindiaren eginkizuna euskal hitz altxorren berrikuntzan eta nola ihardungo du lanean bere eginkizuna behar bezala betetzeko?

2. Zer dio Euskaltzaindiak Hiztegi-gintza batzordearen EEBS lan programaz? Nora jo behar du honek aurrerantzean?

- Nola berregin daiteke Hiztegi-gintza batzordearen eginbehar nagusiak eta ihardupidea definitzen dituen 1984-96 epealdirako plana, batzorde honetako idazkari den Mikel Zalbidek Gasteizen 1984ean aurkeztu eta Euskaltzaindiak 1985ean Bilbon ontzat emandakoa?
- Helburuak lehengoak berberak dira?
- Nola jokatu da aurrerantzean? Nork zer egingo du hemendik aurrera?

Galdera asko bota ditut hemen eta den-denek behar dute erantzuna. Euskaltzaindiari dagokio maila akademikoan erabakiak hartzea administrazioari beste era batekoak hartzea dagokion era berean.

Zuek duzue hitza. Arren eskatzen dizuet gaur hemen entzungo diren iritzi guztiak kontutan harturik erabakiak har ditzazuela. 1992. urtea gainean dugu eta Euskal Herriko herri aginteak nork bere aurrekontuak prestatu beharrean daude une honetan. Horrezaz gainera, Eusko Jaurlaritzak UZEIrekin duen lankidetzaren hitzarmena ere berritu behar dugula gogora arazi nahi dizuet.

Horregatik, gaur hemen hartu behar dituzuen erabakiak hartzeak berebiziko garrantzia du Euskal Herri-aginteentzat ezezik, baita Euskaltzaindiarentzat berarentzat, UZEIrentzat eta euskaldun guztiontzat ere.

Ekin bada lanari, beste batzutan ere egin izan duzuen bezalaxe, eta hemendik aterako diren ondorioak eta erabakiak probetxugarriak izan daitezela guzti-guztiontzat.

Eskerrik asko.

EUSKALTZAINDIA EUSKAL HITZ-ALTXORRAREN BERRIKUNTZA-LANEAN: EGINKIZUNA ETA JARDUPIDEA

Laurgain-Aia, 1991-XI-28

Mikel Zalbide

SARRERA

Eskerrak emanaz ekin nahi nioke nere gaurko azalpen-lan honi. Hiztegitzaintza-batzordearen izenean eskerrak eman nahi dizkiot Euskaltzaindiari orain bi hilabete egin genion eskabidea aintzakotzat hartu duelako eta, horren ondorioz, batzorde honen zenbait kezka eta aburu behar den astiaz aztertzeko egun osoko jarduna eratu duelako. Badakigu eskua bete lan daukala gure Hizkuntz Akademiak, egunean eguneko bere jardunean. Eta konturatzen gara euskaltzaintzat ez dela lan samurra urte-hasieran iragarri gabeko eginkizun batentzat leku egitea. Eskerrik asko, beraz, batzordekideon izenean.

Gutxitan biltzen da, bestalde, Euskaltzaindiaren Hiztegitzaintza-batzorde hau. Orain bost urte pasatxo egin zuen Lekunberrin, oker ez banago, bere osoko azken bilera. Etengabe bildu beharrik ez dauka, noski, horrelako batzorde batek: bilera eta bileraorde gehiegitxo egiten ditugu bestela ere, batean hau dela eta bestean hori dela medio. Bakan biltzeak ere badu, beraz, bere mesedea. Kontua da han eta hemen pauso bat baino gehiago hartu dela azken urteotan, edo hartzen ari dela orain, aski zuzenean Hiztegitzaintza-batzorde honi dagokiona. Eta egoki iritzi diogu batzordekideok, pauso eta neurri horien ildotik, hiztegitzaintzaren eguneroko jardunean alto egin eta egun osoko gogoeta-aldia egitea. Zer dela eta bururatu zaigu, ordea, berariazko bilera hau egitea? Bi gogoeta-gai izan ditugu, funtsean, horretara bultzatu gaituztenak. Labur-labur azaltzen saiatuko naiz bi puntuok:

a) Lexiko-berrikuntzaren alorrean hainbat erabaki konkretu hartzen hasi da Euskaltzaindia, azken bizpahiru urteotan. Erabaki horietariko zenbait, oso oker ez banago, Hizkuntz Akademiak berak 1981ean hartutako erabakiaren aurkakoak dira zuzenean, eta 1986an hartutako bide malguagotik ere urrundu egiten dira hainbatean. Hiztegitzaintza-batzordearen

ustez badago arrazoirik, gertaera horiek direla eta, gogoeta-lan berezirik egiteko. Galdera bi sortzen zaizkio noski, eta besteak beste, puntu honetaz argibide bila hasten denari: Euskaltzaindiaren lana al da, batetik, euskal hitz-altxorren berrikuntza-lana? eta, bestetik, aurreko galderak baiezko (nola-halako, baina baiezko) erantzuna jasoko balu, zein prozeduraz edo jardupidez baliatu behar luke Euskaltzaindiak lexiko-berrikuntza hori aurrera eramateko?

Galdera hau ez da, aurrerago ikusiko dugunez, berria. Orain bost urte Lekunberrin bildu ginenean, esate baterako, luze jardun genuen honetaz. Eta, ustez, adostasun zabal batera iritsiak ginen bilera haren ondoren. Denborak erakutsi du, aldiz, iritzi-bateratasun hura ez zela hain sendoa eta, berriro bakoitza bere aldetik hasiko ez bagara, gaiari aurrez aurre heldu eta irtenbide eroso bat aurkitu beharra dagoela.

b) 1986-87ko ekinaldi hartan, lexiko-berrikuntzari behar zen oinarri sendoaz erantzun ahal izateko, egungo euskararen bilketa-lan sistemati-koa eragin eta gidatzea erabaki zuen Euskaltzaindiak: honen lekuko zuzena dugu, ongi gogoan izango dugunez, 1987ko urtarrilaren 31n Euskaltzaindiak hartutako erabakia. Bost bat urteko epea ezarri zitzaion, lehen estimazio batean, eginkizun horri. Bataio-izen ezaguna eman ere bai: EEBS proiektua. Lanean aritu da ordutik hona bai Hiztegi-gintza-batzorde honen baitako EEBS batzorde-atala eta bai, bereziki, UZEI etxea. Lanaren diseinuaz, gidaritzaz eta jarraipenaz arduratu da Euskaltzaindiaren batzorde-atal hori, eta lana bera egiteaz UZEI.

Bost urteko epea amaitzen ari den honetan badago arrazoirik, alde batetik, zer egin den aztertzeko eta egin den honek Euskaltzaindiari, bere lexiko-berrikuntzaren alorrean, zertan lagun diezaiokeen hausnartzeko. Horra hor, beraz, gaurko jardunaldi honi egotzitako bigarren aztergaia. Kronologiaz bigarrena izanik ere, badago gainera arrazoi sendorik denbora aldetik atentzio nagusia bigarren gai honi eskaintzeko. Herri-erakundeek aurtan amaitzen dute azken bost urtealdi honetako hitzarmen-epea. Eta interesik balukete, zinez eta benaz, hurrengo epealdi batean lexiko-berrikuntzak Euskaltzaindiaren, UZEIren eta alor honetan diharduten gainerako erakunde-elkarteen ustez nondik nora joan behar duen jakiteko: ez, noski, azken puntu eta xehetasuneraino, hori ez bait da hiztegi kontuan egun bateko jardunaz erraz argitu ahal izaten; bai, ordea, bere zertzelada nagusietan. Nolako bizkarrezurra eman nahi dio Euskaltzaindiak, hurrengo bost urteotan, euskal hitz-altxorren berrikuntza-lanari. Non ezarri nahi ditu ekintza-lehentasunak, eta zer moduko lankidetzabideak eratu nahi ditu modernizazio-lan honetan ari diren etxeekin.

Hauek ditugu, beraz, gaurko jardunaldi honetarako begiz joak ditugun gaiak. Joan den irailaren 25ean, batzordearen buru den Ibon Sarasolarekin aldeztu aurretik bildu eta gaia zehaztu ondoren, azalpen-idazki

bat aurkeztu genion Hiztegegintza-batzordearen arduradun guztiok Euskaltzaindiari. Idazki horretan, xehetasun handiegitan sartu gabe ere, batzordekideok puntu horretaz eta oinarrizko adostasun batez bilduak genituen hainbat irizpide eskaini genion Hizkuntz Akademiari, gaurko bilera honetara esku-hutsik etorri beharrik izan ez zezan. Azalpen-idazki hartan labor bilduz emandakoak halako xehetasun batez aztertuko ditugu gaur, guztiok zer ausnar, zer eztabaida eta zer argitu izan dezagun. Gorago esan dizuedanez presa-kontua ere badago tartean. Asteak eta hilabeteak ez dira alferrik pasatzen. Edozein hiztegi-kontu, halako ganora eta sakontasun batez aurrera atera nahi denean, baliabide artezak behar izaten dira eskueran: giza baliabideak, noski, lehen-lehenik (hiztegegintzan trebeak diren espezialistak, alegia). Ez horiek bakarrik ordea: kontuan hartu beharrak dira orobat, izan ere, gauza-baliabideak (lokalak eta, ororen buru, informatika-euskarria) eta antolamendu-bideak (nor zertaz arduratuko den, nor noren buru, etab.).

Baliabide guzti horiek irispidean izango badira, berriz, badakizue kaxa non dagoen: dirubideak segurtatu behar dira. Hiztegegintza kontuan ere musutruk ez da gaur, zorionez, inor ibili zale.

Lexiko-berrikuntzarako dirubideak, 1987-1991 epean Eusko Jaurlaritzatik EEBS proiekturako eman izan direnak, 1992an eta hortik aurrera ere eman behar diren ala ez jakin nahi lukete Herri Aginteez. Eta, hori baino garrantzitsuago dena akaso: dirubide horiek zertan, nola eta noiz eralgi nahi diren argitu nahi lukete. Ez azken xoko-mokoa argitzeraino, lehen esan dudanez, edonork ikusten bait du hori ez dela kolpean argitzeko moduko egintza. Bai, ordea, bere zertzelada nagusietan eta behar adinako zehaztasunez.

Hiztegegintza-batzordearen idazkari izateaz gainera Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko zerbitzuburu ere banaiz, dakizuen; eta utz egidazue, bigarren ikuspegi horretatik, azken aldiz izango bada ere, presa eta premia-kontu hori azpimarratzen.

Hel diezaiozun beraz, bestelako itzulingururik gabe, eguneko aztergai-zerrendari. Lehenengo puntua (lexiko-berrikuntzaren alorrean Euskaltzaindiak zer egin behar lukeen alegia, eta zein jardupidez) aztertu nahi nuke nik berariaz. Bigarrenaz ere zerbait esango dudan arren Andoni Sagarna batzordekideak helduko dio gai honi. Miren Azkaratek ere badu txosten labor bat aurkezteko asmoa. Ibon Sarasola batzordeburuak ere azaldu zigon, oraindik hain azpaldi ez dela, horretaz dituen uste-aburuak agertzeko asmoa. Horiek izango ditugu, beraz, gaurko jardunaldi honen gogoeta-bide: bide honetan barrena abiatuz gaur hona etorri zareten euskaltzain osoon usteak, iritziak eta irizpideak berariaz jaso nahi genituzke noski. Eta, posible balitz, Euskaltzaindiak guzti honetaz, Hondarribian 1981ean edota Lekunberri ondoren 1987an egin zuen bezala, erabaki-

-azalpen bat jakin araz dezan nahi genuke. Halako zerbait beharrezko dela deritzogu batzordekideok, hemendik aurrerako bidea argitzeko eta guztiok, Euskaltzaindiaren gidaritzapean, etekin oneko lankidetzan jardun ahal izateko.

I. EUSKALTZAINDIAREN EGINKIZUNA EUSKAL HITZ-ALTXORRAREN BERRIKUNTZA-LANEAN

Has gaitezen, beraz, hasieratik: zer dagokio Euskaltzaindiari eremu honetan? Edota, are gordinago esanik: ba al dagokio Euskaltzaindiari lexiko-berrikuntzan jardutea? Baten batek galdera hau lekuz kanpora dagoela uste izango du. “Mikel hori, oraindik hain zahartu ere ez zaigularik, dagoeneko burua galtzen hasi ote den” kezkatu ere egingo zen baten bat. Ez dut uste, ordea, galdera hori hain burugabea denik. Euskaltzaindia sortu zenetik, izan ere, euskalari eta euskaltzain askok, eta ez makalenek, heldu izan diote auzigai honi. Eta erantzunetan, ongi gogoan izan behar genukeenez, ez dira beti bat etorri izan.

Inork ez du dudarik egiten euskararen ohizko hitz-altxorra bildu, sailkatu, atondu, bateratu eta are, neurri batean edo bestean, txukuntzea badela Euskaltzaindiaren egitekoa. Ez nolanhiko egitekoa gainera, bere eginkizun mamienetako baizik. Egungo kale-giroan, bizimolde tekniko-industrial honen beharretara egokituko den hitz-altxor modernoan lantzea Euskaltzaindiaren ardurakoa den ala ez, hori ez da ordea beti eta nonahi hain garbi erabakirik egon. Barka egidazue, beraz, lehen begiratu batean burugabe samarra dirudien galdera batekin hasi banaiz: galdera egin beharra dagoela iruditzen zait, 1991n ere, kontuak behar bezala argituko baditugu.

On izango dugu, erantzun pisuzkorik bilatu nahi izatekotan, atzera begiratu eta Euskaltzaindiak, 1919tik honakoan, gai horren inguruan eraman izan duen bidea halako xehetasun batez arakatzea. Hori da, gaizki ez baderitzazue, hurrengo pasarteotan egin nahi nukeena.

I.1. Euskaltzaindiak hizkuntzaren esparru jakin batean zer eginik baduen ala ez duen jakiteko erreferentzi puntu nagusietariko bat, bistan denez, bere sortarauak dira. Sortarauak markatu ohi dute izan ere, beste edozein dokumentuk bezain zorrotz edo are zehazkiago, erakunde baten xedeak, jardun-esparruak eta lan-arloak zein diren.

Argibide baliotsua eskaintzen digute, alde honetatik, Euskaltzaindiaren 1919ko sortarauak. Horra, izan ere, Euskaltzaindiaren xedeak definitzen dituen arautegiaren lehen artikulua, bere g) pasartean, zer dioen: *hizkuntza gizarte-maila guztietan gai bihurtzeko lan egitea*. Euskara gizarte-bizitza modernoaren eginbehar guztietarako egokitzea ezin liteke, urrun-

dik ere, bere lexiko-berrikuntzaz bakarrik erdietsi edo lortu. Hori ere behar-beharrezkoa dugu ordea, helburu hori lortuko bada.

Sortarauen erantzuna argia da, beraz: lexiko-berrikuntza, euskal hitz-althorraren eguneratze-lana alegia, bada Euskaltzaindiaren eginkizun. Bere xede nagusietariko bat horixe da, hain zuzen.

I.2. Horretarako mandatu zorrotza izanik ere egia da gutxi, oso gutxi egin izan duela Euskaltzaindiak, sortu zenetik 1970eko hamarkadara arte bederen, alor horretan: gramatika-alorrean edota ortografiarenean baino hagitx gutxiago, nolahi ere. Urtealdi txarrak, ilun eta zapalduak, izan zirela tartean gogoraraziko dit norbaitek, gerora gabe; eta horrexegatik, hain zuzen, bere eginkizun hau bete gabe utzi behar izan zuela Euskaltzaindiak erantzungo dit. Egia dio halakok, noski. Ez, ordea, egia osoa. Eta egi erdiak, ezaguna denez, erdia ustel izan ohi du maiztxo. Hemen ere halako zerbaiten aurrean gaude.

I.3. Euskal hitz-althorraren berrikuntza-lana Euskaltzaindiaren eginkizun nagusietarikoa dela onarturik ere, berrikuntza hori nork, nola, zenbateko hedaduraz eta noiz egin behar lukeen sarri eztabaidatu izan da gure artean, Euskaltzaindia sortu zenetik beretik: gogoan izan dezagun, adibidez, hizperrigintzari dagozkionetan P. Broussain baten eta J. Urkijo baten arteko aldea, 1918-1920 inguru hartan, zein handi eta sakona zen. Tirabira horrek bere oihartzuna izan zuen 1930 inguruan ere, ezaguna denez, erdal-euskal hiztegia zela medio: Azkue batez hizperriak sortu nahi zituen, ugari eta jator-ereduz sortu ere, eskolaumeek *eclipse parcial* modukoak eskoletan, bere eta beste hainbaten ustez laster zabaltzekoak ziren euskal eskoletan, buruz ikas zitzen. Altube batek, aldiz, beste era batera ikusten zituen berrikuntza-lan honen nondik norakoak. Eztabaida ez zen gainera hor amaitu, aurrerago ikusiko dugunez: gerraondoan bertan, berrogeiko hamarkadan, aurrez aurre heldu zitzaion auzigai honi eta erabakirik, batzar-agiriekin diotenez, ez zen hartu. Hamarkadaz hamarkada, behin eta berriro agertu izan da euskaltzainen artean duda-muda hori: euskara dagoen egoeran egonik, ez teoriatzko egoera txuri-gorri batean alegia, komeni al da lexiko-berrikuntzari ekitea. Eta, komeni izatekotan, nola ekin behar zaio langintza bihurri honi. Azken puntu hau da, hain zuzen, ondoren aipatu nahi dena.

II. EUSKALTZAINDIAREN JARDUPIDEA LEXIKO-BERRIKUNTZAREN ALORREAN

Lan hori berea duela onarturik ere, noiz-nola egin behar lukeen: hori da galdera nagusia. Horren inguruan ibili izan dira, urtea joan eta urtea etorri, Euskaltzaindiaren duda-muda eta eztabaida nagusiak.

L. Villasante jaunak behin eta berriro azaldu izan ditu, 1956tik honakoan, duda-muda eta eztabaida horien nondik norakoak. Ez noa, beraz, ezer berririk esatera, Villasantek luze eta zabal agertutakoak ahalik labur eta xumeen agertzera baizik. Barkatu, labur-biltze horretan, okerren bat sartzen badut. Nerea dateke halakoan errua, noski, ez Villasanterena.

Hiru bide-edo agertu izan dira, lexiko-berrikuntza nola bideratu erabakitzerakoan, hautakizun: nolabait bataiatzearren aitzindari-bidea deituko diot lehenengoari, aitorle-bidea bigarrenari eta, azkenik, elkargile-bidea aurreko beste bien tarte-bitartean dagoen sintesi-bideari. Ikus ditzagun halako xehetasun batez honako hiru bideok. Lehenengo bi bideen ezau-garri nagusiak argitzeko on izango dugu, adibidez, Euskaltzaindiaren 1945eko irailaren hogeitazortziko batzar-agiria aztertzea. Dakizuenez gaztelania-euskara hiztegia egiten urtealdi luzexka emana zuen Euskaltzaindiak, gerra aurrean, Azkueren zuzendaritzapean. Eta berriro lanari heldua zioten, gerra amaitu ondoren. Hiztegi horretako sarrera lexikal askok ohizko hitz-altxorreko elementuak zituen, normala denez, aipagai: *casa* = *etxe* edota *señor* = *jaun* modukoak, nolabait esatearren. Horrelakoetan euskalki eta grafia aldetiko problemak izango zituzten apika, baina euskal baliokiderik ez zitzairen noski hiztegi-gileei falta. Besterik zen, aldiz, euskaraz luze-zabalean erabili eta finkatu gabeko erdal *fórmula*, *telégrafo* edo *adverbio* modukoak euskal ordainen kontua. Zer egin lexiko-berrikuntzaren alorreko hitz "tekniko, moderno" horiekin? Horra 1945eko batzar-agiri horrek zer dioen:

"Erdera-euskera iztegia gertuten diarduen batzorde'ko euskaltzainak adierazoten dabe zertan daroen euren lana, ta diño "A" izkiari dagokon atala amaitutzat emon leikela, iztxo banaka batzuen utsa baino eztagoalata. Iztxo oneek nola euskeratu daitekezan itanduten dabe.

Gai au dala-ta Irigaray jaunak diño bere eritxiz, Lapurdi, Benabarra ta Zubero'ko euskalkien euskalariekin Euskaltzaindia bete arte, eleitekela ekin bear itz barriak atonduten, bestela jazo leitekela orain sorturiko itz barriak inguru areetan ontzat ez artzea eta beraz eginiko lana alperrikoa izatea; bere aburuz, oraingoz, iztegi barri orren lana eleiteke besterik izan bear, ezagaturiko euskal-itzen erderapena atondutea baino, euskerazko itz ezagaturik eztauken erdal-itzak iztegian sartu barik. Urkijo jaunak bere, eretxi auxe agertzen dau.

Bestela Etxaide ta Oleaga euskaltzainak dinoe, geroagoan, orain sorturiko itz barriak aldatu ta zuzendu bearra balitz-bere, oraindanik itz barriok asmatzea egoki izango litekela, euskeraz zelan esan leitekezan jakiten eziran erderazko itz asko dagozalako ta euskeraz idatzi nai dabenai zelanbaiten lagundu bear litzakielako.

Batzuk eta besteok luzaro daragoioe eztabaida onetan. Erabagirik ezta artu".

Ez zen berria, Euskaltzaindian, eztabaida-modu hori. Eta arrazoia, arrazoi bakarra alegia, ez zen iparraldeko euskaltzainak une horretan bertan ez egotea. Iparraldekoak bertan zirenean ere behin baino gehiagotan piztu izan zen eztabaida hori, eta apenas Euskaltzaindia erabaki sendorik hartzera iritsi zen. Batzutan aitzindari moduan erdal hitz hau eta hori euskaraz nola esan behar litzatekeen erabakitzera iritsi zen; bestetan, aldiz, gerorako utzi zituen horrelako erabakiak.

Aitzindari-bide honen lekuko ditugu, gerra aurrean, honako adibideok:

a) 1922ko apirilaren 27an, “*auferantzean erderazko gono esateko euskeraz ertz erabili bedi, ta edro esateko beñiz egal*” erabaki zuen Euskaltzaindiak.

b) 1926ko otsailaren 19an, berriz, “*amerizar edo amamar erdaldunak darabilen itzaren ikurpenez, uretaratu euskeraz esan behar dala*” erabaki zuen.

Beti ez zen, ordea, bete-betea aitzindari-bide honetara lerratzen. 1926ko garragarriaren 25eko batzaldian, adibidez, *antzoki* hitzak zirela eta horra kontuak nola gertatu ziren:

“Antzoki-itzak. Azkue jaunak, arlo auxe gai artu-ta, txosten bat irakuri digu, esanik, ez dala nolanai izen beñirik sortu bear. Arau batzuek dakarzki, auxe ondo moldatzeko. Mujika jaunak iardetsi diyo esanik: arau oyek eder izanañen, ez dirala gai ontan antzakotzat (sic) artu bear, badabiltzalako lendikan izen beñiyak eta abo askotan oituak, esate baterako antzoki (teatro), iruditegi (escenario).”

Horra hor, bere soil-biluzian, aitzindari-irizpidea (Azkuerena) eta aitorle-irizpidea (Mujikarena) aurrez aurre. Aitzindari-irizpideak hitz berriak sortzera darama hizkuntzalari edo euskaltzaina. Hitz-erabide arruntez, normalean: eratorpenez, hitz-elkarketaz, maileguz, zabalkuntza semantiko-ko edo berrezarpen lexikalez. *Ex nihilo* sortzera ere jo ohi du inoiz, hizperrigileak gai horietan euskaraz diharduten euskaldunek benetan zer erabiltzen duten kontuan hartu gabe. Arau batzuk oinarri hartuz hitz berriak moldatzera jotzen du, kontenplazio handiegirik gabe, aitzindari-bidearen aldekoak. Hitzen erabideari buruzko arau egokiak aplikatzea baizik ez dago, aitzindari-zalearentzat, euskararen lexiko-berrikuntza eragiteko.

Herriak ikasi egin behar ditu hitz horiek: lehendik ezer erabiltzen ez bazuen hori esateko, ikas dezala aurrerantzean nola esan; eta, ordurarte beste era batera esaten bazuen, ahaztu dezala hura eta arau egokien arabera moldaturiko berria ikas dezala.

Horren aurrez aurreko punta-muturrean dago, bestalde, aitorle-irizpidearen araberakoa: aztertu egin behar da lehenik jendeak hitz berri horiek nola esaten dituen; erabakiak hartzerakoan idazle-jendeari eman

behar zaio, batez ere, lehentasuna. Idazle-jendeak, erabiliaren erabiliaz, hitz berri bat euskaraz honela edo horrela erabil dezanean, hitz bat euskaldunen artean ongi errotu dadinean, lexiko-berrikuntzaren lanik zailena eginik dago. “Notario”-lana egitea besterik ez du Euskaltzaindiak izango: erdal *teatro* euskaraz *antzoki* esaten dela aitortzea, edota erdal *escenario* euskaraz *iruditegi* esaten (omen) dela erabakitzea. Horra hor aitorle-irizpidearen muina.

Norbaiti gogoak emana izango dio, honez gero, beste hau ere galdeztzeko: “Utzi alde batera iritzi-kontu horiek eta esaidazu, behingoz, Euskaltzaindiak 1926ko hartan nondik jo zuen: Azkueren aintzindari-bidetik, edota Mujikaren aitorle-bidetik”. Erantzuna, oraingoan, garbi samarra da: ez batetik eta ez bestetik, erdibideko hirugarren batetik baizik. Batzutan aitorlearena egin zuen alegia 1926ko hartan, eta *teatro*-tarako *antzoki* erabaki; beste zenbaitetan, aldiz, aitzindariarena: *escenario*-tarako, adibidez, “*abo askotan oitua*” omen zegoen *iruditegi* alde batera utzi eta, hobe beharrez, *agertoki* aukeratu zuen. Elkartu egin nahi izan zituen, itxuraz, aurreko bi irizpideak: ez arau “teoriko” egokien aplikatzaile mekaniko izan, eta ez euskaldun-jendearen ezpain-lumetan zabalduenik zeuden esamoldeen aitorle itsu gertatu. Elkargile-bidea deitu diogu, gorago, erdibideko edo sintesi moduko hirugarren irizpide horri.

—“Kontu zaharrekin zabilta ordea, Mikel, —esango dit batek baino gehiagok—; demagun gauzak orduan, Euskaltzaindiaren hasi berritan, horrela izan zirela. Bide luzea egin dugu ordea ordutik hona, euskararen batasun eta eguneratze-lanean. Eta orduan auzigai zirenak ez ditugu orain, ezinbestean, auzigai”.

Egia da hori ere. Ez egia osoa, ordea. Beti egon izan bait da Euskaltzaindian, gutxi edo asko, muturbide bi horien arteko kinka eta tirabira. Eta orain ere bai. Egoeraren larriak eta beharraren gorriak hitz berriak sortzera, ahalik eta modu egokienean baina berehala eta ugari sortzera, bultzatu izan du eta bultzatzen du aitzindari-irizpideak. Euskaldungoak oro har, eta euskal idazleek bereziki, hitz berrien kontuak bideratu, landu eta umotu artean alferrikakoak (edo are kaltegarri) gertatu omen daitezkeen neurriak ez hartzera bultzatu eta bultzatzen du, aitzitik, aitorle-irizpideak. Adibideak, tirabira horren adibideak, ugari ditugu. Horrela:

II.1. 1950.eko hamarkadan, euskara kultur hizkuntza bihurtu nahia indarberritzen hasi zen hartan, bere gordinean agertu ziren berriro lexiko-berrikuntzaren alorreko kontrajoera biok. Demagun, diogunaren lekuko, Euskaltzaindiak 1956an, Arantzazun, egindako Euskaltzaleen Biltzar famatu hura. Urrestarazu-Umandik, Paristik bidalitako bere idazkian, honela zioen: “*izkuntza bat kulturazkoa dala esateko, izkuntza ori Munduan erabiltzen eta erabiliko diran giza-adimenaren ezagupide guztiak ikasteko,*

irakasteko, adierazteko ta edatzeko bide izan bear". Pausoz pauso egin beharreko lana ikusten zuen Umandik guzti hori, jakina, eta ez gauetik goizera bideratzekoa. "Ala ta guzti ere, abiatu egin behar" esaten zuen. Eta abiatzeko, nondik abiatu?: "Kultura guzien lenengo oñarria irakurten eta idazten ongi jakitea da; ortarako gramatika dugu bearrena. (...) eta nun ditugu guziok ontzat ar ditzakegun gramatika-itz bereziak? Ontarako, nere ustez, beste aunitzen artean, Euskaltzaindiaren lan egokia. Aspaldian antzerkirako egin zuena egin lezake orobat euskal-gramatikaren itz bereziak aukeratzeko: zar edo berri itz auek, danetara; baña guztiz bearrezkoa dugu itz berezi oiek eukitzea". Erdibideko jokamoldeari errespeto handia ageri bazion ere badirudi punta bateko joera aukeratzekotan aintzindari-bidea zuela Umandik begiko.

1956ko Biltzarrak garrantzi handia aitortu zion, egia esan, lexiko-berrikuntzaren kontu honi. Ikusi besterik ez dago, adibidez, Villasanteren orduko txosten gihartsua. Lexiko-berrikuntzari zentzuz eta gogotik ekin beharra azpimarratuz, honako hau zioen txosten hartan, besteak beste, euskaltzainburu ohiak: "**homo-faber** izendatua izan den gizakume gogolanduak ere, lanabes edo tresnak euki ezik, ezin du deusik egin. Eta giza-adimenaren tresnak auetxek dira: kultur-saillean erabiltzen diren kontzeptuak, nozioneak, izenak eta itzak. Oiek eztitugun artean, ezugu aurrerapenik egin al izango". Edota, aurreraxeago: "izkuntza edozein maillatako kultur-gaietarako mintzabide bihurtuaz" euskararen iraupena eta aurrerebidea ziurta zitekeela.

Erabakiak hartu ere egin zituen Euskaltzaindiak 1956ko jardunaldi hartan. Euskal hitz-altxorra berritu beharraz bada, hain zuzen, erabaki haien amaieran aipamen espresurik: "*Jardunaldi ta eztabaida guzti auetan ikusi da argi ta garbi zenbait gaitan aritzeko itzen bear gorria dagoela*". Gaitza aitortu ondoren zein sendagai proposatu zuen ordea Euskaltzaindiak, ekinaldi hartan? Erabakien 5. atalak erantzuten dio galdera horri: "*Badaki batzarreak zenbait kultura-sailletan itzen eskas gabiltzala. Geroago, bear den garaiean, Euskaltzaindiak bere erabakiak ar ditzan, euskaldun ikasi guztieri eskatzen zaie, orretarako egokiera dutenean, gai oriek, bai itzez eta bai izkribuz, euskeraz erabiltzeko, erderara jo gabe, naiz ta nekagarriago izan*". Eta honela amaitzen zuen bere gomendio-aipamena: "*Obe dugu euskera mordoilloan jardun, burutaziñoak adierazi gabe ta ulergaitz utzi baiño, edo zeatz adierazi gabe*".

Aitorle-irizpidera bildu zen beraz Euskaltzaindia, xehetasunak xehetasun, 1956an: *Euskal idazle-jendeak egin beza euskeraz, euskara garbi-garbian izango ez bada ere, nork bere lanbide-alorrean. Eta gero, behar den garaian, hartuko dira behar diren erabakiak.*

II.2. Hamarkada haren amaiera-aldean bertan, 1959an alegia, hartu ere hartu zituen Euskaltzaindiak lexiko alorreko lehen erabakiak. Garbi-

zaletasunak sortutako hainbat hitz iratxori bidea itxi eta, horien ordez, euskara bizian sustraiturik zeuden hitzak, zeinnahi etorkitakoak zirela ere, hobestea izan zen 1959ko apirilaren 2ko agiri haren asmo nagusia. Ohizko hitz-altxorrari zegokion gaia zen hau, berez, lexiko-berrikuntzaren alorrekoa baino areago. Azken puntu honetaz ere eman zuen, ordea, azalpen zehatzik: *“izkuntza berezien gaiñetik zabaldurik dauden kultura eta zivilizaziozko itzak ontzat artzea eta erabiltzea Euskaltzaindiak begi onez ikusten du. Adibidez: **politika, teknika, literatura, liturjia, metro, kilometro ta abar**”*.

Bistan dago erabaki honekin, xehetasunetan sartu ez bazen ere, aitzindari-lanari ekin ziola Euskaltzaindiak. Aldi batean atzundurik-edo utzitako mailegu-bideari balio-indar handia aitortu zitzaion euskal hitz-altxorraren berrikuntzarako. Lema-kolpe baten modukoa izan zen, askok aitortua duenez, 1959ko erabaki hura.

II.3. Astinaldi horren oihartzun gisa, 1960tik 1980 ingurura bitartean areagotu egin zen, Euskaltzaindian eta Euskaltzainditik kanpora, aitorle-irizpidea utzi eta aitzindari-irizpidera biltzeko joera. Lexiko-sorkuntzak ohi ez bezalako abiada eta zabalera hartu zuen gure artean; ez da faltatu izan *lexikogenesis* baino areago gure orduko fasealdi hura *lexikorrea* izan zela adierazi duenik ere. Genesi ala rhea, kontua da gomendio eta erabaki-mordoa, inoiz ez bezalako kopuruan eta ordurarte bakan goldaturiko lur-sailetan, hartu zuela Euskaltzaindiak: filatelia zela, merkatalgoizendegia zela, munduko estatu-izenak zirela, polizi erakunde desberdinen izenak zirela, arkitektura-hiztegia zela, matematika-hiztegia zela,... eta, batez ere, Zortzi Urte arteko Ikastola Hiztegia zela, lan gaitza burutu zuen Euskaltzaindiak aski epe laburrean, lexiko-berrikuntzaren esparru honetan. Aitorle-bidea eta are elkargile-irizpidea alde batera utzia, bete-betean sartu zen aitzindari-irizpidearen ildotik: *Euskaltzaindiak eman egingo zituen gomendio-erabakiak, eta gero gerokoak: euskarari gerorabide itxaropentsuak ikusiabartzen zitzaizkion une hartan, inork ez zezala behintzat esan Euskaltzaindiak bere neurrian, neurri oparoan gainera, erantzuten jakin ez zuenik*.

Hizkuntz Akademia ez zebilen bakarrik, gainera, lexiko-sorkuntzaren irakinaldi hartan. Belaunaldi berri bat, hirurogeiko hamarkadan “gazte gera gazte, ta ez gaude konforme” kantari hazi eta hezitako belaunaldi berri bat, gogoz eta prestu zegoen, Euskaltzaindiak erabakitzen zuena buruz ikasi eta nork bere esparruan, eskola-munduan eta aldizkari-liburuetan bereziki, zabaltzeko.

Ez hori bakarrik: hiztegi-gintza teknikoaren goraldia ere ordukoxea dugu. Orduan sortu eta eratua dugu, besteak beste, UZEI.

II.4. Lexiko-sorkuntzaren irakinaldi honek ere bere gainak jo zituen ordea. Eta horrela, une batean, 1970eko hamarkadan hain gogoz ibilitako

bideari alto eman zitzaion. Ez gara orain, noski, Mitxelena batek esate baterako UZEIren lanmoldeari aurkitzen zizkion ajeak eta hutsarteak banan-banan aipatzen hasiko. Oker egingo genuke, gainera, kritika horiek UZEIren hiztegegintzan zentratzearekin. Ni neu testigu izana naiz, esate baterako, Euskaltzaindiaren beraren hainbat lan ere, *Zortzi Urte arteko Ikastola Hiztegiari* adibidez, Mitxelenak jartzen zizkion erreparoez: han hartutako hainbat erabaki (1784 hitz zekartzan hiztegi honek; gehienak berriak), azken orrazketak berak eginak zizkion arren, ez zitzaion Mitxelenari 1980 ingururako egoki iruditzen.

Arrazoi bat edo beste dela medio, kontua da Euskaltzaindiak berariaz aztertu zuela berriro, 1981ean, euskal hitz-althorraren berrikuntza hau eta berari, langintza horren baitan, zer leku zegokiokoen birdefinitu egin zuela. Honako hau izan zen, hain zuzen, 1981eko abenduaren 29ko bere erabakia:

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENAK

1. HIZTEGIGINTZAZ

Hondarribian, 1981.eko Abenduaren 29an bildurik, Euskaltzaindiak honako hau aditzera ematen du: Euskaltzaindiak literatura eta gramatikaz beste alde, hiztegi lana du bere eginkizun nagusienetarikoa.

Hizkuntzarekiko plangintza orokor baten barnean sartua aurkitzen da hiztegegintza, eta Euskaltzaindiak erantzun egokiak eman nahi dizkio honi.

Langintza horretan ordea, maila bat baino gehiago bada eta beren arteko lehenetasuna kontutan eduki behar du. Euskal hiztegieta, adibidez:

- *Orokorra.*
- *Hiritartua.*
- *Espezializatuak.*

1. Hiztegi orokorrean, Euskaltzaindiak aspaldidanik hasiak dituen lanak aurrera daramatza ahalik eta lasterren buru emateko asmoz.

2. Bilera honetan beharrezkoa ikusi da batzorde bat sortzea, horretarako behar diren gaiak, ahalak eta lankideak biltzeko.

3. Zuzenean ez da Euskaltzaindiaren lana, beste edozein hizkuntzatan ere ez den bezala, hiztegi espezializatuen sortzea eta banan banako azterketa egitea, hizkuntzari eta euskararen egiturari dagozkion funtsezko puntuak zaintzea izan ezik.

Hitz teknikoetan Euskaltzaindiak pozik ikusten du grafia gai orokorrean erabakiak daudenek harrera ona izan dutela. Erabaki gabe daudenak lehenbaitlehen argitzen ahaleginduko da.

Ezin hobeki deritza Euskaltzaindiak edonork taldeka nahiz bakarka arlo honetan lan egiteari.

Lexiko-berrikuntzaren alorrean behintzat aldaketa nabarmena ekarri zuen, bistan denez, 1981eko erabaki honek. Aurreko hamar urteetan hain ugari prestatutako hiztegi teknikoei (matematika, merkatalgoa, filatelia, arkitektura...) geldialdi bat eman zien Euskaltzaindiak. Aitzindari-lan hori ez zela zuzen-zuzenean berea pentsatu zuen.

Horrek ez du esan nahi, ordea, eskuak tolestu eta deskantsu ederrean gelditzea erabaki zuenik, oso bestelako kontua baizik. Bere lehentasunak, premiak eta eginbehar nagusiak beste eginkizun batzuetara orientatu zituen. Horrela:

a) Erdarazko hitz “berri” bat (demagun, esate baterako, *alunizar* edo *reacción química*) euskaraz nola esan behar litzatekeen asmatzen hasi ordez, euskaraz esan edo esaten diren hitzak nola esan eta nola esaten diren aztertzea, ahalik eta era exhaustibo eta sistematikoenean aztertzea, hartu zuen helburu. Eta pauso sendoak ematen ari da, geroztik, helburu bikoitx hori erdiestearren. Hitzak nola (noiz, nork...) erabili diren jakiteko OEH proiektua eratu zuen eta aurrera darama. Hitzak *orain* nola erabiltzen diren jakiteko, berriz, EEBS proiektuarekin ari da. Bata bestearen osagarri dira proiektu biok, bistan denez, eta ez elkarren lehiakide. Bilketak eta sistematizatze-lana da, funtsean, OEH-k eta EEBS-k damaigutena.

b) Lexikologiako lana ere berehala, lehentasun osoz alegia, bideratzen hasi beharra zegoela ikusi zuen Euskaltzaindiak 1981eko hartan. Hortik sortu zen, gogoan dugunez, maileguzko hitzen azterketa (gero erabakiak) eta LEF batzordearen geroztikako lan gutzia.

c) Hirugarren xede bat ere ezarri zion azkenik, Euskaltzaindiak, bere buruari: hiztegi hiritartu arau-emailea.

Diogun, beraz, bideberritze bat ekarri zuela, zenbait alorretako geldialdia baino areago, 1981eko erabakiak: Euskaltzaindiak lexiko-berrikuntzaren barrutian zer egin behar duen eta zer ez, eta egin behar duen hori nola egin behar duen, aztertu zen batez ere Hondarribian. Ordutik honako ibilbidearen ernamuin gertatu da, hainbat aldetatik, erabaki estrategiko hura.

II.5. Zer egin nahi den, eta *nola*, jakitea arras garrantzitsua izan arren, besterik ere argitu behar izaten da ordea ezer egin nahi denean: *nork* egingo duen, *noiz* eta *zein baliabidez*. Hondarribian ez zen, ulertzeko ere denez, xehetasun horietara iritsi. Geroko kontuak dira hauek: 1984etik 1987ra bitartekoak. Hiztegegintza-batzordea sortu zenetik hainbat lan egin zen, bertako idazkaritzatik eta Euskaltzaindiaren osoko bilkuretatik, gai horiek bideratzeko. Eta Herri Aginteez, horrelako langintza bati erantzutekotan ezinbesteko bidelagun, babesle eta diru-iturri izan beharko zuketena Herri Aginteez, aski eskuzabal erantzun zioten lau bat urte horietan eratu zen luze-zabaleko hiztegegintza-lan honi. Hiruzpalau

urteko argitze-lan honek Lekunberrin (orain bost urte) izan zuen bere goi-erpina: Lekunberrin eta, handik epe laburrera, batzordeño baten proposamen-idazkian oinarriturik Euskaltzaindiak 1987ko urtarrilaren 31n hartutako erabakian. Hona, hitzez hitz, 1987k erabaki horren lehenengo bi atalak (*Eusker*a, 1987,2; 343or. eta hurr.).

LEXIKO-BERRIKUNTZA ETA BILKETA-LANA NOLA BIDERA

*Euskaltzaindiaren erabakia,
1987ko Urtarrilaren 31ko bilkuran onartua*

Hiztegitza Batzordeak 1986ko Urriaren 24 eta 25ean, Larraun-Lekunberrin, euskal lexiko-berrikuntzaz egindako azterlanean oinarrituz, eta gai hori sakonago lantzeko batzordeñoak Azaroaren 30ean aurkezturiko proposamena beharrezko arretaz aztertu ondoren, honako erabaki hau hartu du Euskaltzaindiak:

I. ABIABURUAK

Euskal hitz-althorraren berritze-lanak direla eta ondoko abiaburuok hartzen ditu Euskaltzaindiak gidari:

a) Bere sortarauek garbi adierazten dutenez (arautegiko 1. atala, g puntua), Euskaltzaindiaren zeregin nagusietariko bat gure hizkuntza gizarte-maila guztietan gai bihurtzeko lan egitea da.

b) Euskararen gaurkotze eta modernizazio-lana oro har, eta bere hitz-althorraren berritzea bereziki, bete-betean sartzen dira beraz Euskaltzaindiaren lan-esparruan.

c) Euskaldun-jendeak gidaritza eta bateragune baten premia bizia ageri du lexiko-berrikuntzaren alorrean. Bizibidez irakaskuntzan, administrazioan nahiz komunikabideetan diharduten euskaldunek sentitzen dute, itxuraz, premiarik larriena. Ez horiek bakarrik ordea: baserri-giro itxi-itxian edo antzeko bizigune lehenari lotuetan bizi diren euskaldun egunetik egunera urriagoak izan ezik, gainerakoek geroz eta biziago nabari dute, artez edo moldez, beharizan horren zantzua.

Euskaltzaindiak, hizkuntza kontuan herri honen erakunde aholku-emaile denez, aurrez aurre erantzun nahi dio euskaldun-jendearen gidaritza- eta bateratze-behar horri.

II. OINARRIZKO ERIZPIDEAK

Hiztegitzaren alorrari dagokionez, eta oraindainoko pausoen jarraipen gisa, honako erizpide nagusiotan oinarrituko du Euskaltzaindiak lexiko-berrikuntzaren alorra.

II.1. Hitz-althorraren berrikuntza ez da gauek goizera erabaki daitekeen auzia. Inolako arau zehatzik eman aurretik, bereziki, euskaldungoak

ahoz zein idatziz ageri duen jokamoldea bertatik bertara ezagutzea komeni da.

Gaurko egoeran ez da komeni, beraz, jakintzagai eta bizigune desberdinetako hizperrietan banan banako arau sendo eta onespenik ematea. Badago hori baino aurreragoko lanik; eta, aurrelan horiek bideratu artean, hobe da arau-emankizuna alde batera uztea.

II.2. Presa handikoa, eta premia bizikoa, bilketa-lana da gaur egun. Euskaltzaindiak begi onez ikusten du hainbat taldek eta norbanakok azken urteotan aurrera daraman bilketa-lana; aintzakotzat hartzen ditu alor horretan eginak edo eginbidean dituzten saioak, eta aurrerantzean elkarlanean jarduteko gonbite-deia luzatzen die guztiei.

II.3. Euskaltzaindiaren Hiztegitza Batzordeak badu, lexiko-berrikuntzaren behar horri erantzuteko, berariazko lan-programa bat eratu: *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa* (EEBS programa) hain zuzen. Bide horretatik aurrera eramatea komeni da, oinarriz, euskal hitz-altzorraren berritze-saioa.

II.6. Azken ordukoak: zenbait kezkabide eta proposamen.

Nahiko zuzen jarraitu dira, bere batezbestekoan, Hondarribiko eta Lekunberriko erabaki haiek. 1970eko hamarkada euskal hizperriei dago-kienetz asmaketa-aldia izan bazen, bai Euskaltzaindian eta bai hemendik kanpora, oinegiturazko, arnas handiko eta irispide luzeko prestalenen epea izan da 1980ko hamarkada hau. Egia da begiz jotako guztia ez dela eskuratu: ez, behintzat, esandako garaian. Autokritikak, zientzi bidez eta gizalegez jardun nahi badugu hain noraezekoa dugun autokritikak, hori behintzat onartzera eraman behar gaitu. Eta onarpen honek, berriz, aitzakiak eta ulerbikoiztasunak alde batera utziaz konponbide artezak, hitzez ezezik egitez ere, bilatzera bultzatu behar gintuzke. Begien aurre-aurrean ditugun hutsarte horiek aintzakotzat hartuaz ere aurrerapauso sendoa eman dela uste dut, berriro diot, Euskaltzaindiaren hiztegitza-sailean orohar eta lexiko-berrikuntzarenean preseski. Inoiz, alderatzeko ere, izan ez dugun bezalako dokumentazio-iturriz eta irizpide-oinarriz horniturik gaude orain, aplikazio-pausoak ematen hasteko.

Bestelako pausorik ere ematen hasi da, bestetik, Euskaltzaindia: REN-FEko hitzak direla, Bilboko Boltsa edo Burtsa Ofizialeko hitzak direla, Administrazio-alorreko hitzen bat (Hacienda) dela,... hizperri teknikoak banan-banan lantzen eta gomendatzen hasia dugu berriro, orain 15 bat urteko bidera itzuliz, Hizkuntz Akademia.

Kezkabiderik sortzen digu honek bati baino gehiagori. Bide hori argitzen eta arautzen ez bada, istilu-iturri izan daitekeela deritzagu. Hona, konponbide posible baterako, zenbait ohar-azalpen:

a) 1981eko agirian garbi adierazi zen Euskaltzaindiak ez zuela aurretzean espezializate- eta teknika-alorretan banan- banako hizperrigintzan jarduteko asmorik. 1987an, hurrengo bost urteko epean behintzat (OEH eta EEBS amaitu arte alegia), ez zela horretan sartuko berretsi zuen. Hizteggintza-batzordearen ustez Euskaltzaindiaren irizpide horrek badu, orain ere, pisu-indarrrik aski. Eta, ondorioz, irizpide nagusi hura bere horretan mantentzearen alde dago batzordea, irailaren 25eko idazkian azaldu zuenez (ikus hango I.1. puntua).

b) Euskaltzaindiak 1981eko eta 1987ko irizpide horiek aldatu egin ditzake noski; ikusi berri dugunez behin baino gehiagotan egin izan du lehen ere horrelako bide-aldatzerik; eta orain ere egin ezinik ez du. Bidez aldatzen badu, hori bai, jakinaren gainean eta guztiok jakitun izango garen moduan egitea komeni da.

c) Horrelako bide-aldatze bat, txiki edo handi, egitea erabakitzen badu, badira puntu batzuk erabat kontuan hartzea komeni direnak. Aurreko puntuan Hizteggintza batzordearen iritzia agertu den bezala nerea duzue, soil-soilik, honako hau: batzordean ez dugu, egia esan, puntu hau xehe-xehe aztertzeo astirik izan. Horra, beraz, nere ustea:

Euskaltzaindiak lanbide-esparru, jakintza-sail edo jardungune berezi bateko kontzeptu, tresna edo gertaera-ekintza berririk euskaraz nola esan erabakitzeotan, honako baldintza hauek hartu beharko lituzke kontuan:

c.1) Kontzeptu, tresna edo gertaera-ekintza horiek euskaraz bataiatzeko premia, benetako premia, dagoela ziurtatu: orain arte eta gaur egun euskaraz egiten ez den esparruetako hitz berriak euskaraz nola behar luketen asmatzen ez da hasiko Euskaltzaindia. Berariazko hizperrigintzari ekiteotan, premia larria dagoen alorretara soilik mugatuko du beraz, gaur-gaurkoz, bere saioa.

Honek ez du esan nahi bestelako eremuetarako aholku eske datozen erakunde horiek esku hutsik geldituko lirakeeenik. Badaude gaur Euskal herrian, zorionez, era horretako aholku- edota itzulpen-lanetan diharduten elkarte eta lantaldeak: aski litzateke, halakoetan, Euskaltzaindiak aholku eske datorrenari elkarte edo lantalde horien berri ematea.

c.2) Hizperri bat eratu eta erabaki aurretik, orain arte kontzeptu, tresna edo ekintza hori euskaraz nola erabili den edota nola erabiltzen den aztertuko du Euskaltzaindiak. Ez, noski, inoiz erabili den forma bati, den traketsena dela ere, erabili izan hutsagatik itsu-itsuan ofizialtasun-indarrrik emateko. Bai, ordea, erabakia hartu aurretik ezinbestekoa den dokumentazio-oinarri sendoaz hornitzeko.

c.3) Ondoko jakinuturri hauez baliatuko da Euskaltzaindia, gutxie- nez, dokumentazio-lan hori egiterakoan.

- OEHren datu-biltegia (argitaraturik dagoena eta argitaragabea).
- EEBS: dagoeneko metaturik dagoen 2 milioi testu-hitzeko datu-bankua eta hemendik aurrerakoa.
- Euskal hiztegi klasikoak (Azkue, Lhande...) eta gaur egun gehien korritzen dutenak (Kintanarena, Adorez,...).
- Espezialitate-hiztegiak (UZEIrenak eta beste).
- Kasuan kasuko elkarte, lantalde edo langune espezializaturiko eta-koak (administrazio-hitz berrietarako hor daude, adibidez, HAEE-IVAP, Aldizkari ofizialetako itzulpen-bulegoak,...).

Hartutako erabakia interesatuari jakin arazi aurretik, azkenik, aurreko puntuan adierazitako solaskide kualifikatu horiei beren ohar-iritziak aurkezteko aukera emango zaie.

d) Dokumentazio-lan honen jectio-ardura Hiztegi-gintza-batzordeak berak gitea: hori litzateke bidezkoena. Bertako batzorde-atalak eta lantaldeak dira puntu horiekin harreman zuzenena dutenak; eta aski litzateke, lan-modu horiek bideratzeko, aholku-eskeak Euskaltzaindira iritsi ahala eske hori Hiztegi-gintza-batzordeari eskuratzea.

III. AURRERA BEGIRA ZER

Ez naiz honetan sobera luzatuko. Miren Azkarate eta Andoni Sagarra batzordekideek badute honetaz txosten bana, gaur bertan hemen aurkeztekoa. Eta haiei eman nahi diet, luzamendu handiagorik gabe, hitza. Ez, ordea, hezkuntza-alorrean eta gaur eguneko euskalgintza dinamikoan ageri den beste zenbait alorretan ikusiabartzen dudana premia nagusi baten berri eman gabe.

Alde honetatik bada lan bat, hain zuzen, gerora gabe aurrera eraman daitekeena eta, gauzak ondo antolatuko balira, Euskaltzaindiaren 1993ko kongresurako bideratua egon ezinik ez lukeena (ez han bukatzeko halere: lauzpabost urteko lana litzateke hori, hasi eta buka). Gutxienez euskal hitzen idatzizko forma zuzena emango duen ortografi hiztegiari ari naiz noski. Hasieran izen hori eman genion Hiztegi-gintza-batzordean, eta honi eusten diot oraingoz. Bestelako bataiorik ere eman zaio geroztik, ordea: zalantzen hiztegia, euskara batuaren hiztegia,... Bataio-kontuaren gorabehera hori iruditzen zait oraingoz, dena den, gutxiena. Zertarako hiztegi berri hau?: honegatik edo hargatik, euskara batuaz dihardugunean ere hainbat hitz eta esapide justu nola idatzi behar den ez dugu jakiten. Horri buruzko zalantzak argitzen lagunduko luke era honetako ortografi hiztegi horrek. Lehen estimazio baten arabera, 10.000-20.000 hitz ingu-

ruko zerrenda izango litzateke hiztegi hori. Bada gorago jo nahi lukeenik ere, 50.000 hitz ingurura iritsiz. Ortografiatzko edo dena delako hiztegi hori premia handikoa da, alde askotatik begiratuta:

a) Eskola-munduan 11.500 irakasle euskaldunetik gora ditugu Euskal Autonomi Elkartearen bertan, 300 eta gehiago ikastetxetan euskaraz, nagusiki edo soil-soilik euskaraz, irakasten ari direnak. Erantsi horri gero eta euskaltegi ugariagoetako irakasleak. Eta ez ahaztu, gainera, batzuen eta besteen ikasleak, gazte eta heldu.

b) Komunikabideetan ere, ahoz (irradi-telebistetan) zein idatziz (egunkari, astekari eta aldizkarietan) gizajende-sail handia ari da, eguna joan eta eguna etorri, euskaraz lanean.

c) Berdin argitaletxeetan eta haien inguruan, urtero argitara ematen diren 800 eta gehiago libururen prestalanean.

d) Administrazio-alorrean eta Unibertsitatean ere ez dira hain urriak, gehienetan erdal itsaso zabalez inguraturiko uharteak izan arren, euskaraz ari diren norbanako eta taldeak.

Euskaraz bizi eta euskaraz diharduten milaka lagun horiek dira, alde askotatik begiratuta, Euskaltzaindiaren erabakien premia handiena ageri ohi dutenak eta, erabakion berri izan orduko, gogozkoenik ikasten eta erabiltzen dituztenak.

Gizajende-multzo horrentzat laguntza handia litzateke, Hiztegi-gintza-batzorde honen ustez, ortografi hiztegi hori prestatu eta kaleratzea. Eta hori, ezinbestean, Euskaltzaindiak egin beharreko lana da: hori bai ezin duela Euskaltzaindiak beste inoren esku utzi. Prestalana, EEBSren kasuan bezala, bere esanera egongo den norbaitek, UZEIk nere ustean, egin dezake (berak dauka, besteak beste, hartarako dokumentazio-oinarri zabal eta egokituena). Ez, ordea, erabaki-hartzea: Euskaltzaindiaren baitan egiteko lana da hori.

Hori egiten asmatzen badugu, eta horretarako behar diren dirubide eta aginte-babesak eskuratzen, ez dugu lan makala eginik izango. Saiatzea behintzat merezi duen ekintza delakoan nago, eta hartara doaz nere gogo-asmoak.

Esan dut.

EUSKARA BATUKO LEXIKOAREN PLANGINTZAZ ZENBAIT GOGOETA

Laurgain-Aia, 1991-XI-28

Miren Azkarate

Euskaltzaindiak hitzak erabakitzen ari behar ote duen ala ez eztabaidatzerakoan, ezinbestekoa iruditzen zait euskararen estandarizazioan, euskararen plangintzan edo (behar bada ezagunagoa zaigun) “euskara batua”-ren eraikuntzan Akademia honek izan duen eta duen zereginaz zenbait gogoeta egitea. Izan ere Euskaltzaindiak azken hogeitahogeitabost urteetan gure gizartean lortu duen itzal eta begirunea neurri handi batean hizkuntza estandar edo “batu”rako ezinbesteko diren ortografi eta morfologi mailako erabakiei zor zaiela esango nuke. 1968an Arantzazun egin zen Biltzarraz geroztik Euskaltzaindia izan da euskara “batu”aren gidaritza eraman duena; eta gizarteak (zati handi batek behintzat) gidaritza hori onartu ez ezik, eskatu ere egin izan du Akademiak honetaz edo horretaz erabakiak har zitzen. Bere eskuetan utzi du, beraz, gizarteak hizkuntza estandararen planifikazioa (edo nahiago bada “corpus”aren planifikazioa, hizkuntza estandarda ezartzeak berez Akademia baten zeregin eta ahalmenetatik kanpo geratzen diren beste hainbat erabaki ere eskatzen baitu).

“Corpus”aren planifikazio horrek, besteak beste, morfologi mailan dauden forma desberdinetatik bakarra hautatzea eta lexikoa, hiztegia, egokitu eta osatzea eskatzen du. Alde honetatik, ezaguna da arestian aipatu dugun bezala, Euskaltzaindiak morfologi mailan egindako lana. Lexikoari dagokionez, hor daude 1986an maileguz hartzen ditugun hitzei buruzko erabakiak. Maileguetatik kanpo ere lan handia dago egiteko ordea: forma desberdinak dituzten hitzetan (*eskaini/eskeini, ardao/ardo/arno...*) estandarderako bat hautatzea, hitz eratueta (eratorri zein elkartueta) forma zuzena erabakitzea, zientzia eta teknika alor desberdinek eskatzen duten hiztegia osatzea...

Nori dagokio lan guzti hori? Zein leku izan behar du Euskaltzaindiak euskara estandardeko lexikoa osatze-lanetan? Egia da terminologia zientifikoa alorrean alorreko adituek egin behar dutela eta Euskaltzaindia ezin hasiko dela kimika, fisika, zuzenbide etabarretako terminologia berezitua

sortzen. Baina halako hitzak alde batera utziaz, ba al du Euskaltzaindiak zeresanik gainerako hitz “arrunt”agoetan? Eskakizun honi erantzutea neurri handi batean Hiztegitzintza batzordearen zeregina dela uste izan dut beti. Hain zuzen ere, behar horien arabera antolatu dira batzorde horretako azpibatzaileak: euskararen ondarea osatzen duten hitzen bilduma jasoko duen *Orotariko Euskal Hiztegia*, euskal hitzen erabideak aztertzen dituen LEF batzordea eta mende honetako testuak biluztuz azken urteetako lexikoaren (hitz bakun, eratorri eta maileguzkoen) ikuspegia ematen ahalegintzen den Egungo Euskeraren Bilketa-Lan Sistematorako batzordea. Badirudi horrenbestez informazio-sarea aski aberatsa dela. Baina azpibatzaile batetik eta bestetik datozen datuak batuz eta horietan oinarrituz aurrera egin beharra ere somatzen dut. Hau da esan nahi dudana: informazio guzti horrek erabilera guztien —okerren eta zuzenen— berri emango du; baina nola zuzendu okerrak?

Beste modu batera esanda, nori dagokio *erabakior*, *misil-eraso hilkor*, *tripulari*, *trafikari*, *kiroltasun*, *naziotasun*, *anbulategi* edo *laborategi* bezalakoan aurrean iritzia ematea, zer gertatzen ari den aztertzea? Badakit guztiak direla hitz eratorriak, LEF batzordearen ardurapekoak beraz; eta batzorde hori, atzizki bakoitzaren nondik norakoa aztertu eta azken urteetako jokabideen berri ematen ahaleginduko da. Baina aski al da Euskaltzaindiaren izenean erator-atzizkien erabilera zuzenak irakatsiko dituen liburukia(k) argitaratzea, edo Euskaltzaindiak erator-atzizkien inguruko adierazpenen bat egitea? Berez pentsa daiteke argibide bila dabilenak hor izango duela nora jo. Gaurko errealitatea ikusiaz, ordea, beste lan hori baztertu gabe, ez ote askoz praktikokoago eta mesedegarriago egungo euskararen hiztegia osatzea, hasierako 2.000 hitzeko kutxa hura gaurkotuz eta zabalduz?

Halako hiztegi batek emango lioke kazetari, itzultzaile, administrazio-langile edo horren beharrea den edozeini *ikuskarri/ikuskatzaile*, *eskaini/eskeini*, *arazi/erazi*, *bake/pake*, *erabakior/erabakigarri*... eta beste hainbat eta hainbat hitzen forma egokia. Azken batean, Euskaltzaindiaren ardura litzatekeen hiztegi arau-emaile baten hastapena egon daiteke hor. Eta hastapen horretan, Mitxelena behinola esan zuenez, errazenetik hastea litzateke egokiena; hau da, formak ezartzetik alegia, forma horretan hitzen erabideak ere barne leudekelarik.

Gainera horrelako lan batek euskal lexikoaren plangintza egokirako nahitaez aztertu behar diren puntuen eztabaida ekarriko luke berarekin, nere iritziz Euskaltzaindiaren inguruan egin beharrekoa:

1. Garbizaletasunaren eta maileguen arteko arazoa.
2. Zilegi al da euskal oinarriak egon ez arren, atzizkien ordezkatzeko automatikoa hitzei euskal itxura jatorragoa emate aldera edo? *Anbulategi*, *laborategi*...

3. Hobe a ote da euskal erroa hautatzea maileguei bidea itxiz nahiz horrek oinarriaren kategoria gramatikala aldatzea ekarri berarekin? *Kiroltasun, naziotasun.*
4. Nahitaezkoa ote da erdaraz hitz bakarra dagoenean euskaraz hitz bakarra ematea (eta honek erdal aurrizkien kasuan sekulako garrantzia du)? *Superbizi* edo *elkarbizi* ala *bizirik iraun, elkarrekin bizi*? Kontutan hartu behar da gainera bide batetik edo bestetik egiteak dituen ondorioak zein diren *certificado de convivencia* etab. esan behar direnean.

Arazo hauei eta beste zenbaiti erantzutea eskatzen du gaurko euskal lexikoak, norbait lexiko horren planifikazioaz eta zuzentasunaz arduratzea alegia. Eta norbait hori, Hiztegi gintza batzordearen lanean oinarrituz, Euskaltzaindia izan behar da nire ustez, bakoitzaren iritzizko eta borondate oneko jokabideak gaindituz, bide zuzenak hesitu eta markatu ko dituen a.

EEBS PROIEKTUAREN 2. FASEA: **Abiaturua, helburu estrategikoak eta epe laburreko asmoak**

Laurgain-Aia, 1991-XI-28

Andoni Sagarna

1. Abiaturua


Dakizuenez, EEBS proiektua aurrera eramateko asmoa Hiztegitzinta-batzordearen epe luzerako planean jaio zen. Egungo Euskararen Bilketa-lan sistematikoa, *Orotariko Euskal Hiztegia* eta Lexikologi Erizpideak Finkatzeko batzordearen lanak, ondoren egin beharreko Hiztegi Hiritartu Arauemailearen eta Jakintzagai eta bizigune desberdinetako terminologia teknikoen oinarri izan behar zutela esaten zen egitasmo hartan.

Ez da alferrikakoa izango, agian, puntu horretaraino iristeko, Euskaltzaindiak egin zuen bidea gogoratzea. Oraintxe hamar urte, 1981eko abenduaren 29an, Hondarribian bildurik, Euskaltzaindiak adierazpen bat egin zuen, hiztegitzintzari garrantzi berezia emanez. Bertan esaten zen hizkuntzarekiko plangintza orokor batean sartua aurkitzen dela hiztegitzinta, eta Euskaltzaindiak erantzun egokiak eman nahi zizkiola honi. Azalpen honen ostean maila eta lehentasunak bereizten zituen hiztegitzintzan. Hiztegi Orokorra, orain OEH deitzen duguna alegia, ahalik eta lasterren burutzeko asmoa zuela, "hiztegi hiritartua" martxan jartzeko batzorde bat sortzea beharrezkoa ikusi zela eta, azkenik, hiztegi espezializatuak egitea eta banan banako azterketa egitea ez dagokiola Euskaltzaindiari esan zuen.

Hondarribiko adierazpena ez zen hitz hutsetan geratu eta 1982ko martxoaren 26an Euskaltzaindiak zenbait erabaki hartu zituen, bai Hiztegi Orokorrak lantokia, tresnak eta lantalde bat izateko bidea jarriz eta bai Hiztegi hiritartuaz arduratuko zen batzordea izendatuz ere.

Hurrengo urrats inportanteak, 1983ko apirilean, Euskaltzaindiak Iker Sailaren barnean Hiztegitzinta-Batzordea izendatzen duenean, eta 1984. urtean epe luzerako plana onartzen duenean, ematen dira. Azken hau inportantzia handikoa izan zen, urte batzuetan euskal hiztegitzintzan Euskaltzaindiak egin edo gidatu beharreko lanak mailakatu eta denboran programatzen zituen erabaki akademikoa hezurramitzen zuelako.

Euskera aldizkarian (XXXI zenbakia (2. aldia), 130 or.) argitaratu zen grafikoa dakargu hona epe luzerako lan-programaren adierazgarri:



Orotariko Euskal Hiztegia, euskal lexikoa mendetan zehar nolakoa izan den agertzen ari zaigu, Lexikologi Erizpideen Finkapenerako Batzordea, euskal hitzak eratzeko baliabideen azterketa xehea egiten, h. d. maileguzko hitzen idazkerak dituen arazoak edo hitz-elkarketak eta eratorpenak eskaintzen dituzten aukera aberatsak argitzen.

Egungo Euskararen Bilketa-lan sistematikoak —Larraun-Lekunberrin 1987an eginiko gogoeta-saioan ezarritako mugen arabera— XX.mendeko euskara idatziaren berri ematen duen corpus bat eratzea izan du helburu azken bost urteotan. Bertan 2.000.000 testu-hitz aurkitzen dira beren testuinguruekin, kokapen-erreferentziekin eta lemekin. Bilduma honek corpus zerrendatu baten itxura du, ondoko irudiko adibidean ikus daitekeenez:

hitza-erref.	esaldia	burdina	lefnb
33 054017308106 0001		burdin hari galbaniztuz egindako ardallak.	burdin hari
33 054017514105 0045	...a lara horretarako :	burdin hariak , gur trinak , ibi gurak eta..	burdin hari
33 054017514114 0079	... altzairuak eta	burdin hari galbaniztakoak	burdin hari
33 054017517271 0018	Garrantziakoa :	burdin industria harturik murriztu izan dir..	burdin industria
33 054017517313 0017	Hastapeneke	burdin industria horiei burdindolak deitzen ..	burdin industria
33 05400209806 0048	...i Euzkoal Herria :	burdin neatz era .	burdin neatze
33 054004209431 0045	...a zabalait elkarrekin :	burdin neotogiak (Arrapeta , Logand , et..	burdin neotogi
33 054006123117 0050	...xiotasun mugatua eta	burdin metalak , zere oxidazio zentralatik ..	burdin metal
33 054004209383 0106	... , berruzalatuak zuzen	burdin produktua XI,) zanda hastapenez II ..	burdin produktua
33 05400506409 0099	...lo 5 , 1000-6000 tona	burdin produktuen salerak , hots , europ..	burdin
33 054018802716 0016	- kromatza eta	burdin urtua eg .	burdina
33 05400309701 0052	...i burdin erraita eta	burdin-neatze produktuk dira , produktu z..	burdin neatze
33 054004131118 0026	...i lara erro baretako	burdin-urak .	burdin ur
33 054010001711 0001		burdin-urra enaten du eta " Pol-pol) * du ..	burdin ur
33 054016009711 0025	...aitokak : Sufra (S)	burdina (Fo) Prozedura [kurts] : ,) Pasa..	burdina
33 054006018703 0016	Ura , barria ,	burdina , erlojuak , gure igarumen ikusien ..	burdina
33 054014601111 0006	4 ,)	burdina , { Fo } .	burdina
33 054014600404 0079	...egilua handia dira :	burdina , kobrea , kobaltak , lodia , flua..	burdina
33 054016009711 0028	...open pisa itzazu 6 g	burdina , berazren balorea aurreratuz , etl..	burdina
33 054018701518 0087	...a liralda itxakita (burdina ,	alkantara eta urtua) .	burdina
33 054004014318 0140	...ste berrea eta berrea	burdina .	burdina
33 054004014309 0065	... iklinatua , bal eta	burdina oro erabiltzen dituzten elandiar bil..	burdina
33 054006182421 0085	...ik botetuen badozu ,	burdina metalikoa [forn] burdina(II) ibia..	burdina
33 054019814704 0027	...ira* [dn] (subegil :	burdina [kurts] berotzeko [kurts] su [kurts..	burdina
33 054014600213 0001		burdina [bit] (Fo) .	burdina
33 054006123321 0110	...ina metalikoa [forn]	burdina(II) izaia bihurtzeko saioa .	burdina
33 054006123321 0007		ad ,) burdina- apurten gundun kobrea(II)-eko al..	burdin apur

Proiektu hau lantzeko prestatu den tresneria informatikoari esker, corpus zerrendatu hori modu desberdinetan kontsulta daiteke, hala nola: testuinguru zabalagoa ikusiz, lehen arabera alfabetikoki ordenatuz, testu-hitz edo lema jakin baten bilaketa eginez, testu-hitz baten agerpen-maiztasuna eskatuz, etab. (Ikus *Egungo euskararen bilketa-lan sistemati-koa. EEBS programa I. fasea txostena*).

2. Helburu estrategikoak eta epe laburrerako asmoak

Hiztegi-gintza-Batzordearen esparruan azken urteotan egiten ari garen lanak "azpiegiturakoak" dira. Ez dira ospe eta distira handia ematen duten horietakoak. Gero egin beharreko eraikuntzen zimenduak sendoki finkatu nahian gabilta. Badakigu berehalakoan ez ditugula ikusiko fruitu mardul begi-gozagarriak; epe luzerako lanean ari garela eta inola ere ez goizetik gauera loratu eta hurrengo goizerako zimeldua dagoen lore liluragarri bezain iragankorra aldatzen.

Honelako lanei ekin egin behar zaie, nahiz eta ez jakin zehatz-mehatz haietatik abiatuz luzarora egingo diren lan konkreituak zein eta nolakoak izango diren. Alabaina, egiten den lanaren zentzua gal daiteke, zenbait neurri hartzen ez baldin bada. Hauek lirateke norabidea ez galtzeko, etengabe eta ziklikoki egin beharreko ariketak:

- 1. Azken helburuak gogoeta egin, uneko ikuspegitik.

2. Azken helburu horretarako bidean hurrengo bide-harria edo tarteko helmuga definitu: zer lortuko den eta noizko.
3. Hurrengo bide-zatia egiteko beharko diren baliabideak zehaztu.
4. Egindako lanari eta hurrengo urratsean egingo denari epe laburrean ere probetxua ateratzeko bideak bilatu.

Ez da ona, ez urrunegi dagoen helburu bat bakarrik, tarteko helmugarik gabe, edukitzea, eta ez berehala probetxua atera nahiak itsutu eta azken helburua galtzea.

Hiztegitza-batzordearen 1985eko epe luzerako planeko lan-programei irizpide hauek aplikatuz gero, ondorio interesgarriak atera ditzakegu.

2.1. Planaren lerro nagusiak birpentsatzeko zenbait oinarri

Plan hark bi etapa bereizten zituen, lehena 1984-1990 eta bigarrena 1990-1996, baina idatzi zenetik onartu zenera pasatako denboraren eraginez, planaren hasiera atzeratu egin zitzaigun.

EEBS proiektuaren kasuan, hau burutuko zuen taldea izendatu arte beste atzerapen bat gertatu zen. Lanak ez ziren hasi 1987ko iraila arte. Bukatzeko epemuga, berriz, 1991ko urte-bukaeran ezarri zen.

Eskuetan ditugun datuen arabera, epemuga horretarako ez da zeharo bukatua geratuko lana, corpusaren zati baten lematizazioak 1992ko hila-bete batzuk hartuko bait ditu.

LEF programaren atal inportante bat, (hitz-elkarketaren eta eratorpenaren azterketa, epe luzerako planean LEF 2 zeritzana) 1992aren bukaeran amaitu nahi litzateke eta lexiko-berrikuntzarako semantikazko auke-irabideak lantzeko xedea duen LEF 3 oraindik bideratu gabe dago.

OEH dugu Hiztegitza-batzordearen lanen artean pisu eta alkanztzurik handienekoa. Bertan ari direnei dagokie, noski, gai honetaz hitz egitea, baina, batzordearen azken helburuez gogoeta egiteko behar-beharrezkoa den heinean, har dezagun hartaz ere hausnarketatxo bat egiteko lizentzia.

Lan eskerga da benetan OEH. Hasieran uste genuen baino handiagoa seguruenik. Hala dirudi, zeren eta epe luzerako planean esan genuen 1984-1990 epean lehentasuna izango zuela eta ondoren, hura menderatua izango genuelakoan, 1990-1996 epealdian beste programa batzuk aurrera eramateko egokiera izango genuela, baina gaur egun badakigu bukaera urrun dagoela oraindik. Hala ere, honek ez luke izan behar etsitzeko edo arrangura sortzeko arrazoi.

Azken helburuen eta tarteko bide-harrien arazora itzuliz, lasai esan daiteke OEHren kasuan tarteko helmuga garrantzitsu bat gauditua duela. Izan ere, corpusa informatizatua, corpus zerrendatua eta fitxategiak pres-tatuak edukitzeak zilegi egiten du erabat OEHren oinarritzko informazio-bilketa bukatua dagoela esatea.

Urrun dagoena, beraz, azken helburua da. Tartean beste bide-harririk ezartzen ez badugu, hainbat fruitu ematen aritu beharko lukeen altxor bikaina antzu edukiko dugu, fruitu horien premia larrian dagoen euskal-dungoa goseak dagoen bitartean. Gainera, azpiegiturako lanean ihardu-teak berez duen iluntasuna luzatu egingo dugu proiektuaren beraren kaltetan. Baliabideak jarri behar dituenak, nahiz emaitzen zain dagoenak, ikusmen estrategiko zorrotzik ez badu, —eta hori badakigu zentzumen urria dela gure artean— nekez ulertuko du zertan ari den lantalde bat hainbeste denbora “ezer gutxi” produzituz.

Gauza bat da OEHren helburu nagusia den paperezko edizioa eta beste bat OEHren corpus informatizatua. Honek sekulako jokoa eskain dezake planteamentu egokia egiten bada. Aurreraxeago zehaztuko ditugu aukeratako batzuk.

Beste printzipio garrantzitsu bat ere gogoan izan beharko genuke: Hiztegitintza-Batzordearen lanaroko programa desberdinen arteko siner-gia bilatzea komeni zaigula.

1984eko epe luzerako planean 1996rako helburu bezala jartzen zen Hiztegi Hiritartu Arauemailea atzeratu beharra dago, zalantzarik gabe, obra erabat bukatu bezala planteatzen bada. Hala ere, azken helburu horretarako bidean hurrengo bosturtekoaren bukaerarako, tarteko helbu-ru batzuk ipin daitezke, gauden egoeratik abiatuta, aurrerago esango den bezala.

2.2. Nola ustia daiteke corpus informatizatu bat?

Corpus informatizatuen tratamendua heldutasunera iritsi den jakin-tzagai sendoa da gaur egun. Corpus-hizkuntzalaritza funtsean hizkuntz erabileraren eta hizkuntz barietateen azterketa deskribatzailea da. Corpus batek, testu-zati askoren bitartez, era desberdinetako hizkuntz erabilera-n azalpen adierazgarria egitea du xedetzat.

Corpus informatizatuen hainbat eta hainbat adibide aurki daitezke han eta hemen. Adibide gisa banaka batzuk aipatuko dira:

Institut de estudis catalans, Rafel irakaslearen zuzendaritzapean, pres-tatzen ari den katalan modernoaren corpusa, berrikitan martxan jarria den *Corpus de referencia del español*, *Trésor de la langue française*, Ale-

maniako Mannheim-en *Institut für deutsche Sprache*-k sortu duen alemanaren datu-base lexikografikoa (LEDA), Holandako Nimegako Unibertsitatean dauden ingelesezko, arabierazko eta espainierazko corpus informatizatuak, Lancaster-Oslo/Bergen (LOB)ingeles britaniarrezko corpusa, etab.

Gure kasuan, hizkuntzaren batasuna eraikitzeko, behar beharrezkoa da, literatur tradizioaz gain, batezbesteko erabilera literario garaikidea ere ongi ezagutzea. Horiexek dira, hain zuzen ere, OEH eta EEBS proiektuen xedeak, hurrenez hurren: euskararen mendetako ondarearen eta XX. mendean zehar argitaraturiko idazkietan ageri den euskararen ezagutza zehatza lortzea. Euskararen ezagutza diogu eta ez euskal lexikoarena, hiztegegintza-arloaz haraindik ere interesa izan dezakeelako bertako informazioak: sintaxi-mailan, esamoldeen azterketan, dialektologian, onomastikan, estilistikan, etab.

Hiztegegintzan eta hiztegegintzatik landa corpus bat ikuspegi desberdinetatik ustiatu ahal izateko, ikertzaileen irispidean jarri behar da. Zazpi giltzaz itxitako kutxan gordeta baldin badago, seguru egongo da, baina baita alferrik ere. Datorren bosturtekoan zehar lortu beharreko helburu importante bat OEH eta EEBS proiektuetako corpus informatizatuak ustiatzeko moduan jartzea izango da.

Bi eratako arazoak gutxienez sortzen dira corpusa ikertzaileen eskuetan jarri nahi denean: informatikoak eta jabegoarekin zerikusia dutenak. Bai batzuek eta bai besteek konponbidea badute, hartara jarriz gero, beraz, erabakiak hartzean dago gakoa. Arazo hauen azterketak txosten honen mugak gainditzen ditu eta gainera teknikoen laguntza eta berariazko batzorde baten lana eskatzen. Alabaina, pentsatzen hasteko, zenbait oinarri ezarriko da ondoko lerroetan.

2.3. Datu-base lexikografiko baten beharra eta hau eratzeko zenbait oinarri

OEHren eta EEBSren corpus informatizatuetatik abiatuz, epe luzerako lanei euskarri egokia eman nahi bazaie, aldi berean pixkanaka euskararen batasun- eta normalizazio-prozesuetarako material erabilgarriak kaleratzeko bidea emanez, *Euskararen datu-base lexikografikoa* eraikitzea litzateke egokiena. Honelako datu-base batek asko errazten du hizkuntz materialaren bilketa, analisia, egituraketa, eta deskribapena.

Lehenik eta behin, lexikografoari etengabe sortzen zaion kezka larri bati ematen dio irtenbidea. Hiztegegintzan ari zaretenok ongi ezagutzen duzuen arazoa da eta besteok berehala ulertuko duzue. Askotan gertatzen zaigu, edozein eragiketa sinple burutzeko, ikerketatxo bat egin beharrean aurkitzen garela, hau egin ondoren, bilatzen genuen emaitza jaso-

tzen dugula, baina bidean lantzen joan garen hainbat informazio interesgarri, era egituratu batean jaso gabe geratzen zaigula. Hurrengo batean konturatzeko gara, egun batzuk edo hilabete batzuk lehenago aztertu genuen zenbait puntu berriro aztertzen ari garela. Arazo hau asko larritzen da lan berean lagun bat baino gehiago ari direnean.

Adibidez, testu-hitz bati legokiokeen lema edo hiztegiko sarrera-burua zein litzatekeen erabakitzen ari garenean, era askotako galderak sortzen zaizkigu: zein izango da hitz honentzat aukeratuko dugun grafia? inguruko beste testu-hitz batekin ez ote luke osatu behar lexia bat? ba al dagokio sarrera-bururik ala azpisarrera batean joan beharko luke? testu-hitzean ageri den forma euskalki batean duena da ala idaztoker bat dago? hitzaren ezagutzen ez genuen adiera baten aurrean gaude, gaia ezagutzen ez dugulako testua gaizki interpretatzen ari gara ala autoreak desegokiro erabili du hitza testuinguru horretan? etab, etab. Analisi morfologikoa, fonologikoa, semantikoa, sintaktikoa eta ez dakit zenbat eratakoa egin dugu, baina, azkenean, beste batean eroso kontsulta daitekeen informazio-bilketa eta -egituraketarik ez dugu egin. Hori denbora- eta diru-xahutze ikaragarri eta onartezina da. Denbora eta dirua harrika botatzea da, eta ez bata, ez bestea dira horretarako. Hobe da denbora eta dirua zerbait iraunkorra eta erabilgarria eraikitzeke erabiltzea, hitz batean, inbertitzea eta ez xahutzea. Datu-base bat eraikiz hauxe da lortuko dena, hain zuzen ere, ikerketa lexikografikoaren emaitzak etorkizunean prozesatu ahal izateko moduan gordetzeko egitura bat sortzea. Besterik da, horri lehenbailehen etekina ateratzeko zerbait egin behar dela. Hori ere aintzakotzat hartu da eta ondoren esango da zehatzago zerbait horretaz.

Datu-base honek, jakina, sistema informatiko batean egon behar du eta erraztasunak eman behar dizkio hizkuntzalariari, ordenadorearekin modu interaktiboan lan egiteko. Sistema dagoen lekutik kanpoko ikertzailen irispidean jartzeko ere azter daitezke soluzio desberdinak: kopia eguneratuen aldizkako banaketa eta kontsulta telematikoak, esate baterako.

Datu-base baten ezaugarri nagusiak informazio-dukina, datu-bildumaren egituraketa, erabiltzaileak informazioa eskatzeko dituen erak eta datuak gehitzeko, kentzeko eta aldatzeko moduen antolaketa dira. Azken hiruak ezaugarri informatikoak eta estudio tekniko batek ebatzi beharrekoak dira. Bidenabar esan daiteke, ulertzen duenarentzat, *Oracle* moduko 4. belaunaldiko sistema bat SQL galdeketa-lengoaia erabiltzen duena litzatekeela egokiena. Informazio-edukinari dagokionez gauza gehiago zehaztuko dira hemen.

Datu-base honek izango lituzkeen xedeak asko lirateke, lehentxoago esan bezala, baina hiztegigintza-arlokoak hartuko dira hemen kontutan:

a) Testu-hitzak eta lema haiek dauden testuekin eta testuoi dagokien fitxategi bibliografikoarekin erlazionatu behar dira, beraz, fitxategi

bibliografikoek eta testu-fitxategiek bertan izan behar dute. Pentsatu beharra dago, bestalde, fitxategi bibliografikoek bere badutela berezko interesa.

b) Lexikografoak eroso lan egingo badu, eskueran (begien irispidean, pantailan bertan) izan behar ditu lehendik argitaraturik dauden hiztegi interesgarriak, besteak beste, ezin pentsa daitekeelako corpusean azaltzen ez den baina hiztegietan azaltzen den zenbait hitz hiztegi berrietan sartuko ez denik. Gure kasuan *OEH*, *Hauta-lanerako euskal hiztegia* (prestatuak dauden neurrian), *Euskararako hiztegia*, *Hiztegia 2000*, etab. izango lirakeke. Argitaraturiko hiztegiekin batera argitara eman gabeko beste fitxategi batzuk ipin daitezke: Duden fitxategia, Hizpal fitxategia, Berran fitxategia... Urtetan zehar hiztegi gintzarako, testuen zuzenketarako, eta antzeko lanetan eginiko ikerketa puntualen bilduma informatizatuak eta egituratuak dira hauek.

c) Lexikografoek lantzen duten informazioa era egituratu batean gorde beharko da. Gero, denboran zehar, hiztegi desberdinak prestatzea pentsatu ahala, bakoitzean artikuluek izango duten egitura formala erabaki beharko da. Ez da berdin izango definizioak dituen haurrentzako hiztegi bat prestatzea, hiztegi ortografiko bat egitea, hiztegi entziklopediko bat lantzea, etab. Bakoitzak bere egitura, metahizkuntza erabiltzeko bere era, etab. izango ditu, baina hiztegi gileak iturburu beretik aterako du informazioa. Honek esan nahi du bi lan-mota daudela etengabe.

- Datu-base lexikografoaren enborra osatzen duen oinarrizko informazioa aberastea, zuzentzea, eguneratzea, eta
- Oinarrizko informaziotik abiatuz produktu lexikografiko konkrituak prestatzea.

Bi eginkizun hauek ez dago arras banantzerik, txostenaren hasieran azken helburuez eta tarteko bide-harriez proposatu diren irizpideak urratu gabe. Ezin gara ibili oinarrizko informazioa aurrena ongi landu eta gero aplikazioak edo produktu konkrituak egingo ditugula pentsatzen. Erantzun zain dauden premia askoren soluzioak “ad calendas graecas” uztea litzateke. Baina, luzarorako informazio-enbor sendo eta iraunkor bat egitea ahaztu eta aldian aldiko produktuak prestatzen ihardutea alferlan asko egitea litzateke.

2.4. Datu-base lexikografikoaren erabilera hiztegi gintzatik kanpora

Lexikografiatik kanpora honelako datu-base batek duen interesa azaltzen hasteko, egokia izango da hurbil-hurbilekoa den lexikologia aipatzea. Azken urteotan LEF batzordean egin diren lanak gogoan izatea aski da. Hitz-elkarketa eta eratorpena aztertzeko, berariaz aukeratu den corpus bat izan dugu eskuartean eta bertatik hitz jakin batzuk beren testuinguru

adierazgarriekin hartu ditugu. Ongi da. Horri esker, adibidetegekiak prestatu eta txosten asko egin ahal izan dira. Pentsa ezazue, ordea, zeinen gauza ederra litzatekeen atzizki (edo bukaera) bera duten lemak, hauei dagozki-
kien testu-hitzak eta testuinguruak aukeratu ahal izatea. Nahi izanez gero denak eta nahi izanez gero autore batenak, epealdi edo euskalki batekoak edo beste irizpideren baten arabekoak. Gauza hauek, maila apalean behintzat, landu izan ditugu eta baita emaitza interesgarriak erdietsi ere. Hau aukera posible bat besterik ez da. Beste aukera batzuk, galdeketa-
sistema egoki batek eskaini behar litzuzkeenak izan litezke: hitz jakin bat bilatzea, grafema-katea batez hasten edo bukatzen diren hitzak edo katea hori hitz-barnean duten hitzak bilatzea, esaldi berean edozein hitz-
konbinazio edo grafema-kateen konbinazio agertzen diren kasuak bila-
tzea, hitz-formen maiztasun absolutu eta erlatiboak ezagutzea, etab.

Oinarrizko irizpideetan aipatzen zen sinergiaz baliatzea izango litzateke OEHko eta EEBSko bildumei LEFeko sailkapen-irizpideen markak ezartzea, hitz elkartu eta eratorrietan edo maileguzko hitzetan ageri diren egokitzapenak seinatzea...

Urrunxeago dauden beste arlo batzuekiko lotura oso eskueran daukagu gaur egun, Gasteizko Filologi Fakultateak, Deustuko Unibertsitateak, Donostiako Informatika-Fakultateak eta UZEIk elkarrekin dituzten harremani esker. Esate baterako, dagoeneko lortua dagoen analizatzaile morfologikoak izan lezake aplikaziorik honelako datu-base baten barnean eta, alderantziz, lengoia naturalaren prozesamenduaren arloan hain beharrezkoa den lexiko-mailako informazioa datu-basetik aterako litzateke. Honetarako, jakina, datu-basean makinak (eta ez gizakiak) erabili beharreko datuak ere sartzeari komeniko litzateke. Honela, gaur egun garatua dagoen analizatzaile morfologikoak, bi mailako morfologiaren formalismoa deritzana, erabiltzen du, eta, horretarako, lehen ondoan hauen jarraitze-klaseei buruzko informazioa duen hiztegi bat du edo analizatzaile morfologiko horretan oinarritzen den Xuxen zuzentzaile ortografikoak, idaztokerrak errazki hautemateko erabiltzen dituen estrategiaren artean maiztasun-hiztegi batez baliatzea baldin badago, hiztegi horren iturririk egokiena datu-basea litzateke noski.

Euskararentzako analizatzaile sintaktikoei buruzko ikerketan ezer gutxi egin den arren, syntaxiaz arduratzen direnak balia daitezke datu-baseaz eta honen tresnez gauza askotarako.

3. Ondoko bost urtetarako lan-programaren proposamena

3.1. Helburuak

Datozen bost urtetarako lan-programan bi eratako helburuak jarriko ditugu:

1 Hiztegi Hiritartu Arauemailea hemendik hamar-hamabost urtetarako azken helburu bezala harturik, hartarako informazioa bilduko duen *datu-base lexikografiko erlazional bat eraikitzea*. EEBS eta OEHko corpusak hartuko lirateke oinarritzat, eta bestelako informazio osagarriak gehituko lirateke, tradizio lexikografikoa eta zeinnahi argibide lexikologiko bertan jasotzeko modua eginez.

Dagoeneko prestatua dugu UZEIn honelako datu-base baten prototipoa EEBSko 200.000 testu-hitzekeo corpus-zati lematizatu batean oinarritua.

2 Euskararen batasun-prozesuan beharrezkoak diren *hiztegi-arloko material praktikokoak prestatzea* Euskaltzaindiarentzat eta, honek erabakitakoaren arabera, baita argitalpenerako ere.

Hiztegi Arauemaile osatu batera iritsi aurretik Euskaltzaindia joan daiteke hainbat orientazio ematen hiztegi aldetik. Gaur egun horrelako zerbaiten premia handia dago euskal gizartean. Duela hogeitabost urtetik hona Euskaltzaindiak ortografiaz, deklinabideaz, aditzaz, maileguzko hitzen idazkeraz, etab. emandako arauen bidez batasun-bidea urratuz joan da. Bitartean euskara eskolan, komunikabideetan, administrazioan eta beste esparru batzuetan sartu da eta beharrizan berriak agertu dira. Denbora honetan, 1968an Arantzazuko Biltzarraren ondorioz argitara eman zuen *Batasunaren Hiztegia* eta 1975ean kaleraturiko *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia* ditu Euskaltzaindiak batasunerako eman dituen erabaki-mailako oinarritzko hiztegiak. Bistan da ez dagoela proportziorik euskararen urte hauetako garapenaren eta hiztegi-arloko araugintzak denbora berean, alderdi kuantitatibotik behintzat, izan duen pisuaren artean. Hiztegin-tzaren atzerapen horren arrazoiak, gainditzen ari garen egiturazko ahulezietan eta gai horretan lankide izan behar genuenon harremanak bideratzeko foro egokien faltan bilatu behar dira. Egitura-arazoak asko konpondu dira giza nahiz diru-baliabideak, antolakuntza, gestio ekonomikoa, kontrol akademikoa eta euskarri teknikoa jarri diren neurrian. Bestalde, azken urteotan Euskaltzaindiaren Batzorde eta Azpibatzerdeak topagune aproposak eta dinamika berri baten sortzaile ari dira gertatzen. Aldeko egoera honi eta egina den azpiegiturako lanari probetxua ateratzeko egokiera dugu orain.

3.2. Lan-prozedura

Hiztegi-alorreko erabaki bat edo gomendio bat kaleratu baino lehen lan handia dago:


- a) Materialaren prestakuntzan: zerrendak, txostenak, etab.
- a1) Formari dagokionez aparteko arazorik ez duten hitzen zerrendak presta litezke lehenbailehen.

a2) Formaz edo/eta adieraz argitasun-beharretan diren hitzen inguruko txostenak landu behar dira, hartu nahi den erabakia behar bezala oinarritua eta dokumentatua gerta dadin.

b) Euskaltzaindiaren barneko eztabaida bideratzen. Euskaltzaindiak ihardupide eroso eta argia formulatu beharko du, jasoko duen informazioa zein izango den eta nola moldatua nahi duen zehatz finkatuz eta barne-eztabaidak eta hauen ondorioak modu ahalik eta sistematikoenean egituratzeko.

c) Euskaltzaindia da, noski, bere erabaki eta gomendioen erantzule bakarra. Dagokion erantzukizunaz gain, onarpen soziala ere begiratu nahi badu, ordea, erabiltzaileen iritzia eta kezka jasotzen saiatu beharko du (Ikus honetaz *LEF batzordearen proposamena Euskaltzaindiari* izenekoan egiten diren kontsideroak).

Zerrendak eta txostenak Euskaltzaindian aztertu beharko lirateke onspena emateko, informazio osagarria eskatzeko eta erabiltzaile kualifikatuen iritzia biltzeko. Prozesu hau aurrera eramateko era bat baino gehiago asma daiteke. Guk geure egiten dugu, hemen aurkezteko, Mikel Zalbidek asmatu eta proposatu ziguna:



3.3. Lan-programa

- EEBSren 1. fasean bildutako corpora 1987tik aurrerako testuetatik ateratako lagin batez eguneratu. Mendearen hasieratik 1987. urtea arteko corpus-zatia biltzeko eta hustutzeko irizpide eta prozedura berberak erabiliko dira, corpus osoa koherentea izan dadin.

- Bost urtetan zehar 50.000 sarrera-bururen formak finkatzeko behar den informazioa lantzeko konpromisoa hartuko genuke. Kopuru hau baino txikiagoa ez litzateke aski izango gure gizarteak dituen beharrei erantzuteko. Laneko erritmoa ondokoa izango litzateke urtez urte:

Urtea	Sarrera-kopurua
1992	5.000
1993	15.000
1994	15.000
1995	10.000
1996	5.000

Lehen urtean ezin izango litzateke material gehiago prestatu, lehen-bizi EEBSren 1. fasea errematatu eta 2. faserako prestakuntza egin behar-ko litzatekeelako. Handik aurrera bi urtetan erritmoa mantenduko litzateke baina azken bi urteetan moteldu egingo litzateke, errazetik zailera joango ginatekeelako.

Landuko litzatekeen lehen zerrenda arazo berezirik gabeko hitzena izango litzateke hain zuzen.

- Ikuspegi lexikologikotik landutako zerrendak:
 - * LEF batzordeak dagoeneko landuak dituen sailkapen-irizpideen arabera hitz elkartu eta eratorriei dagozkien lemak markatuz gero, adibidetei aberatsak presta daitezke; hitz elkartuak eta eratorriak beren testuinguruekin sailez sail eta maileguzko hitzak egokitzapen-arazoen arabera zerrenda litezke.
 - * LEF batzordeak oraindik landu gabe dauzkan beste arloetako adibidetei egokiak ere para litezke: zabalkuntza semantikozko lexiko-sorkuntzari eta hedabide sintagmatiko desberdinei dagozkienak, alegia.

- Ikuspegi morfosintaktikotik landutako zerrendak: juntagailuen erabilera, aditz-erregimenen erabilera, osagaien segidak, etab.
- Ikuspegi pragmatikotik landutako zerrendak: esapideak, lokuzioak,...

3.4. Txostenetan gogoan izan beharreko irizpideak

Zerrenden lanketarako ezarri den erritmoari erantzun ahal izateko, hilean mila hitzeko zerrenda bat aztertu beharko luke batezbeste Euskara batuko hiztegiaren batzordeak, Euskara batuko batzordeari aurkezteko. Lan hau ezinezkoa litzateke arazoak dituzten hitzei buruzko txostenek egitura simple eta zehatza ez balute.

Derrigorrez metodologia sistematikoa diseinatu beharko da, ahal dela literatura askoko txostenen ordez parametro edo tasun batzuen deskribapen laburra bilatuz. Ez da hau, noski, diseinu hori eztabaidatzeko leku egokia, baina parametro horien lerro nagusiak zein izan litezkeen aipa genezake:

- * Formaren tradizioa corpusean eta lexikografian, dialektoen (Iparralde-ekialde vs hegoalde-mendebalde, mailen (jasoa/zaindua/zainduga-bea), berbaldi-moten (ahozkoa/idatzizkoa; tekniko/arrunta) araberrako banaketa.
- * Formaren bizitasuna vs arkaikotasuna.
- * Forma lehiakideen maiztasuna.
- * Forma bakoitzaren emankortasuna, lexikogenesiaren ikuspegitik: eratorriak eta hitz elkartuak eratzeko edo zabalkuntza semantikoz adiera berriak sortzeko erabiltzen al den, alegia.
- * Forma bakoitzak duen erregularitasuna, hau da analogiaz paradigma batean txertatzeko egokiera.

Azken hitz gisa, esan beharra dago txosten hau ez dela lan bukatua, Hiztegitzinta-Batzordeak lanean segitzeko abiapuntua baizik, alabaina, hona hemen laburbildurik Euskaltzaindiari proposa dakizkiokeen erabakigaiak:

1. Euskara batuko hiztegiaren batzordea sortzea.
2. OEH eta EEBSren corpusekin Euskararen datu-base lexikografikoa sortzeari onespena ematea.
3. Datozen bost urtetan 50.000 sarrerako euskara baturako hitz-zerrenda moldatzeko lan-programa onartzea.